

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

**IKASLEEN AUTONOMIA LEHEN
HEZKUNTZAN, GAUR EGUNGO EGOERA:
BOST IRAKASLEREN IRITZIAK**

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Perez Manso, Goizane.

ZUZENDARIA: Ibarrola Agirre, Jose Antonio.

2019

LABURPENA

Dokumentu honetan, gaur egungo ikasleen autonomia aztertzen duen Gradu Amaierako Lana izango du irakurleak ikusgai. Izan ere, nabaria da orokorrean azken urteetan umeak euren familiengandik gero eta babestuagoak daudela eta horrek zenbait ondorio ekarri dituela euren autonomian. Hortaz, ikerketa txiki hau aurrera eraman ahal izateko, lehenik eta behin oinarri teoriko bat ageriko da lan hau hobeto ulertzeko baliagarria izango den terminologia azalduz eta autonomiaren garapena baldintzatzen duten faktore edo arlo ezberdinak azalduz. Ondoren, atal praktikoa aurrera eraman ahal izateko bost irakasle elkarrizketatu dira: bi tutore, gorputz hezkuntzako irakaslea, musikako irakaslea eta eskolako zuzendaria. Elkarrizketa hauen bitartez, autonomiari dagokionez gaur egungo egoera ezagutu nahi izan da irakasleen eta familiaren eragina kontuan izanda. Autonomia ez ezik, hezkuntza emozionalak ere garrantzi handia hartu du lan honetan. Elkarrizketak egin baino lehen helburu eta hipotesi batzuk finkatu dira, ondoren baieztatuta edo ezeztatuta izango direnak. Lanarekin amaitzeko, lan hau hobetzeko proposamenak azalduko dira.

Hitz gakoak: Autonomia, Autoestimua, Hezkuntza emozionala eta Familia.

RESUMEN

En este documento, el/la lector/a tendrá disponible el Trabajo de Fin de Grado que analiza la autonomía de los alumnos de hoy en día. Es evidente que en los últimos años, en general, lxs niñxs están cada vez más protegidxs por sus familias y a causa de ese factor, se han producido varias consecuencias en la autonomía. Para poder llevar a cabo esta pequeña investigación, al principio del trabajo se podrá encontrar una fundamentación teórica en la que se explicará una terminología que ayudará a entender mejor este trabajo. A continuación, para poder llevar a cabo la parte práctica, se han entrevistado a cinco profesorxs: dos tutoras, el profesor de educación física, la profesora de música y la directora de la escuela. Mediante estas entrevistas, se ha querido conocer la situación de hoy en día respecto a la autonomía de lxs alumnxs teniendo en cuenta la repercusión de las familias y el profesorado. A parte de la autonomía, la educación emocional también ha sido importante durante este trabajo. Antes de hacer dichas entrevistas, se han establecido unos objetivos y unas hipótesis que al final del trabajo serán confirmadas o desmentidas. Para terminar con el trabajo, se explicarán unas propuestas de mejora.

Palabras clave: Autonomía, Autoestima, Educación emocional y Familia.

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. Justifikazioa	4
3. Marko Teorikoa	5
3.1. Kontzeptuak	5
3.1.1. Autoestimua	5
3.1.2. Autonomia	6
3.1.3. Izaera pertsonala	7
3.2. Familien eragina	8
3.3. Autonomia eta autoestimua-aren garapena autore ezberdinen usteetan	10
3.3.1. Piaget	11
3.3.2. Pikler	11
3.3.3. Maslow	13
3.4. Irakasleen eragina ikasleen autoestimuan eta autonomian	14
3.5. Curriculum ofizialetan autonomiari egindako aipamenak	16
3.6. Hezkuntza emozionala	17
3.7. Autonomia eta izaera pertsonala lantzeko proposamen bat: konfiantzaren pedagogia	19
4. Helburuak eta hipotesiak	22
5. Metodologia	23
5.1. Lagina	23
5.2. Datuak biltzeko tresna	23
5.3. Prozedura	24
5.4. Kategoriak	24
6. Emaidak	26
7. Ondorioak	32
8. Hobekuntza proposamenak	36
9. Bibliografia	38
10. Eranskinak	41

1. SARRERA

Dokumentu honen bitartez, lehen hezkuntzako graduari amaiera emateko, autonomiari buruzko Gradu Amaierako Lana izango du irakurleak ikusgai. Lan hau hainbat ataletan egituratuta dago, baina bi dira Gradu Amaierako Lan hau osatzen duten atal nagusiak, atal teorikoa eta atal praktikoa hain zuzen ere.

Atala teorikoarekin hasi baino lehen, lan honen justifikazioa aurkituko da eta bertan, autonomiaren gaia aukeratzearen arrazioak azalduko dira, modu horretan lan hau aurrera eramateko ilusio eta motibazio ezberdinak era subjektibo batean adieraziz.

Jarraian marko teorikoa egongo da, zazpi azpi ataletan banatuta: Lehenik eta behin, gaiarekin zerikusia duten zenbait kontzeptuen azalpena egongo da lana ondo ulertzeko ezinbestekoak izango direnak. Ondoren, familiek umeen autoestimuan eta autonomian duten eragina azalduko da. Hau ikusi eta gero, autoestimua eta autonomiaren garapena autore ezberdinen esanetan agertuko da. Honen ostean, irakasleek ikasleen autoestimuan eta autonomian duten eragina dator. Marko teorikoarekin jarraituz, curriculum ofizialetan autonomiari egindako aipamenak egongo dira ikusgai. Hau ikusi eta gero, hezkuntza emozionalari buruz hitz egingo da, eta marko teorikoari amaiera emateko, autonomia eta izaera pertsonala lantzeko proposamen bati buruz hitz egingo da, konfiantzaren pedagogiaren inguruan hain zuzen ere.

Honen ostean, atal praktikoa agertuko da. Horretarako, lan honen norabidea zehaztu duten lau helburu azalduko dira eta hauekin lotura duten hipotesiak izango ditu irakurleak ikusgai, ondoren baieztatu edo ezeztatuko direnak.

Lanarekin jarraitzeko, ikerketa txiki hau egiteko erabili den metodologia azalduko da atal ezberdinak azalduz. Hasieran, ikerketarako erabili izan den lagina azalduko da. Ondoren datuak biltzeko tresna azalduko da, kasu honetan elkarrizketak, eta metodologiarekin amaitzeko, ikerketa aurrera eraman ahal izateko prozedura azalduko da.

Gero, elkarrizketen emaitzak aztertuko dira Gradu Amaierako Lan honen helburuak oinarritzat hartuz eta ondoren, emaitza hauek kontuan izanda, ateratako ondorioak egongo dira ikusgai, hasieran ezarritako hipotesiak baieztatuz edo ezeztatuz.

Bukatzeko, lan honetan aurkitutako oztopoak eta hauek konpontzeko bideak azalduko dira. Gainera, etorkizun batean ikerketa honekin jarraitu nahi izanez gero, lana hobetzeko zenbait proposamen azalduko dira lana hobetzeko asmoz.

2. JUSTIFIKAZIOA

Gradu Amaierako Lanerako gaia aukeratu behar izan nuenean, argi neukan nire intereseko gai bat aukeratu behar nuela, izan ere, banekien lan hau egiteko denbora asko igaro beharko nuela. Aitortu beharra daukat, irakasle izango naizen heinean, beste zenbait beldurren artean, familia dela gehien beldurtzen nauen faktorea. Argi dago familiak eragin zuzena duela ikasleen ikaskuntza prozesuan eta hortaz, familia eta eskolaren arteko harremana ezinbestekoa da ikasleen ikaskuntza kalitatezkoa izan dadin. Arrazoi honengatik “Familien parte hartzea eskolan eta hezkuntza sisteman” izeneko gaia aukeratu nuen.

Tutorearekin harremanetan jarri ostean, gaia oso orokorra zela azaldu zuen eta horregatik, gai zehatzago bat aukeratu behar nuela azaldu zidan. Familiarekin lotura zuzena zuen gai bat aukeratu nahi nuen eta praktiketara gai bat zehazteko motibazioarekin joan nintzen. Gorputz hezkuntzako praktikak burutzen ari nintzela, ikasleen autonomia falta erakusten zuten zenbait kasu ezagutu nituen eta horiek gertutik behatzea erabaki nuen. Praktiketako tutorearekin hitz egin ostean eta egoera ezberdinak ikusi eta gero, kasu gehienak familiaren jokaerarekin lotura zuzena zutenaz konturatu nintzen. Esate baterako, hirugarren mailako ume askok ez zutela gorputz hezkuntzako motxila prestatzen euren gurasoek prestatzen zutelako edo neska bat ez zela igeriketako ikastarora joaten bere amari beldurra ematen ziolako.

Praktiketan ez ezik, eskolaz kanpoko begiralea naizen aldetik, bertan ere umeen autonomia eskasa behatzeko aukera izan dut. Irakasle batzuekin hitz egin ondoren, argi geratu zitzaidan gaur egungo umeek gehiegizko babesa jasotzen dutela euren familietatik eta horrek euren autonomian eragiten duela. Honekin batera, lau urte hauetan jaso dudako formakuntzan, gutxitan aipatu izan dugu ikasleen autonomia, eta gai honi garrantzi handiagoa eman beharko liratekela uste dut.

Gauzak horrela, zalantza asko sortu zitzaizkidan autonomiaren inguruan. Hala nola, noraino eragin dezake familiak haurren autonomian?, zein da eskolaren papera gaur egun ematen den autonomia eskasaren aurrean?, autonomia eskasak ikasleen errendimendu akademikoan eragiten du?...

Aurreko galderei erantzuna bilatzeko asmoz eta gai honi buruz informazio gehiago eskuratzeko asmoz, Gradu Amaierako Lan hau AUTONOMIARI buruz egitea erabaki nuen. Gainera, uste dut irakasle izango naizen heinean, lan honek nire formakuntza aberastu dezakeela eta etorkizun batean lan honen bitartez ikasitakoa erabilgarria izango zaidala.

3. MARKO TEORIKOA

3.1 KONTZEPTUAK

Marko teorikoarekin hasteko, ezinbestekoa ikusten dut lan honetan zehar askotan errepikatuko diren kontzeptuak argitzea, autoestimua autonomia pertsonala eta izaera hain zuzen ere. Historian zehar, hainbat autorek hiru kontzeptu hauen zenbait definizio argitaratu izan dituzte eta lan hau hobeto ulertzeko, hauetako batzuk azaltzea beharrezkoa ikusten dut.

3.1.1 AUTOESTIMUA

Autoestimua eta autokontzeptu hitzak askotan nahastu egiten dira. Psikologia arloan bi kontzeptu hauen artean eztabaida ugari sortu egin dira historian zehar (Ortega, Mínguez eta Rodes, 2000). Hortaz, bi kontzeptu hauen azalpena egitea komenigarria dela uste dut. Autoestimua eta autokontzeptua erabat lotuta daude baina euren esanahia ez da berdina. Izan ere, autokontzeptua norberak bere buruarekiko duen ideia da, gure pertsona osatzen duten elementu guztien irudikapena alegia. Elementu kognitibo bat da eta gure nortasunari, gure gaitasunei, gure itxura fisikoari eta hainbat arloei buruz ditugun ideiak barnebiltzen ditu ideia hauei balio negatibo edo positibo bat ezarri gabe (Vallés, 1998).

Autoestimua, pertsona batek bere autokontzeptuari buruz egiten duen balorazioa da (González Pineda, 2003). Modu horretan, geure buruarekiko ditugun ideia guztiak perfektutzat hartzen dugun ereduarekin konparatzen ditugu, eta eredu horren arabera, gure irudi fisiko, psikologiko eta soziala osatzen dituzten ezaugarri guztiak modu positibo edo negatibo batean ebaluatzen ditugu (Bermúdez, 2000).

Autoestimua norberak bere buruari egiten dion ebaluazioaren emaitza da. Geure buruaren inguruan egiten dugun balorazio hau gure autokontzeptuan oinarritzen da, eta horretarako, arlo kognitibo zein afektiboek paper garrantzitsu bat jokatzen dute, izan ere, bi arlo hauek modu osagarri batean garatzen dira (Pérez, 1997). Autoestimua, autokontzeptuan aurkitzen den informazio objektiboaren eta informazio horren uste subjektiboaren arteko konbinaketan datza.

Bi kontzeptu hauek ez dira kontzeptu globalak eta erabat askeak dira. Izan ere, arlo konkretu baten ikuspegi on bat izan dezakegu beste arlo baten ikuspegi negatiboa dugun bitartean. Gainera, konplexua eta aldakorra da, eta gure bizitzan zehar garatzen joaten da (Feldman, 2001).

Guzti honengatik, autoestimua, pertsona baten garapen psikologikoan, kognitiboan eta sozialean izugarritzko garrantzia du eta horregatik kontuan izan behar da hezkuntza arloan (Naranjo, 2007).

3.1.2 AUTONOMIA

Gizakiok ez gara aske jaiotzen. Egia esan, gizaki guztiok gure gurasoen eta gure bultzaden menpe jaiotzen gara erabat eta apurka-apurka nahikotasun eta askatasun maila handiagoa zein txikiagoa eskuratzen joaten gara. Hezkuntzaren helburu nagusietako bat autonomia pertsonala sustatzen duen prozesua bultzatzea da. Bai eskolako hezkuntza, familiakoa zein soziala. Horregatik, nortasunaren formakuntzatik eskola aldentzeak eta eskolari soilik instrukzioaren ardura uzteak, hezkuntzaren betebeharren ulermen falta nabarmena suposatzen du. Izan ere, eskolaren arduren artean, eginkizuna, erantzukizuna eta norberarekiko segurtasuna kontzeptuak lantzen diren didaktikak ezartzea aurkitzen da (Marina, 2009).

Gizakia jaiotzen denean eta denboraldi luze batez, oinarrizko beharrak asetu ahal izateko laguntza behar du. Hauetako behar batzuk ez dira modu aske batean asetzen umeak hezkuntza sisteman sartu arte (González, 2012).

Aurretik aipatu dudan bezala, badaude autonomia hitzaren definizio ugari Aranega-k eta Guitar-ek “Hijos autonomos y responsables” liburuan emandako definizioa honako hau izan zen: Pertsona batek bere kabuz erabakiak hartzeko eta ekintzak aurrera eramateko gaitasuna da, kanpo kontrol baten beharra izan gabe eta gaitasun hau egunerokotasuneko hainbat arlotan aplikatuz (Aranega eta Guitar, 2005, p. 53).

Piaget-entzat, hezkuntzaren helburua autonomiaren garapena izan behar da, bai arlo moralean bai arlo intelektualean. Autonomia hitza norberak bere kabuz zentzu kritiko batean pentsatzeko gaitasuna bezala definitu zuen. Umeek ez dituzte balore moralak zein ezagutza intelektualak barneratuak izan behar, baizik eta hauek eraikitzen joan behar dira ingurunearekin izandako interakzioaren bitartez (Kamii eta López, 1982).

Haurren autonomia garapenaren hainbat arlotan banatu daiteke. Arlo motorrean, hizkuntza arloan, arlo kognitiboan eta arlo sozio emozionalean hain zuzen ere. Badaude autonomiaren garapenari buruz hitz egiten duten hainbat teoria. Teoria hauetatik ondorioztatu da haurren autonomiaren garapena kontrol motorra eskuratzen duenean, umeak bere ingurunearen ezagutza fisikoa lortzen duenean eta haurrak gauzatutako ekintzak autorregulatzeko gaitasuna eskuratzen duenean eraikitzen dela. Hortaz, arazoak ebazteko gaitasuna izango du pentsamendu kritikoa erabiliz (Yábar eta Bronzoni, 2018).

3.1.3 IZAERA PERTSONALA

Jaiotzen garenetik, bakoitzak gure izaera propioa dugu nahiz eta hau zehaztua ez izan, inguruneak (familiak, gizarteak, ikastetxeak, etab.) ere nortasuna baldintzatzen duelako nortasunaren garapena. Izaerak ezaugarri propio jakin batzuei egiten die erreferentzia eta denbora pasa ahala eta faktore ezberdinen eragina dela medio, hauek egituratzen eta aldatzen joango dira. Pertsona baten gaitasunak eta pertsona horrek talde sozial ezberdinetan izandako integrazioa, pertsona horrek garatutako izaeraren arabera izango da. Garatutako izaera hau denbora luze batez iraungo du egoera ezberdinei egokituz. Psikologia arloan, iritzi ezberdinak daude izaeraren inguruan. Psikologo batzuek arreta jartzen dute haurtzaroaren lehenengo etapetan. Beste batzuek, ordea, herentziaren ondorioa dela diote, eta beste talde baten usteetan, aldiz, ingurumena da gizakiaren izaeraren ezinbesteko faktorea. Dena den, izaera hitza definitzen dugunean, ezinbestekoa da aipatzea ezaugarri indibidual bat dela eta izaera dela pertsonak ezberdinak egiten dituen (Seelbach, 2013).

Izaera psikologia arloaren ikerketaren parte da eta modu ezberdinetan azaldu daiteke. Lehenik eta behin pertsona baten jokatzeko, pentsatzeko, sentitzeko eta moldatzeko erak ulertzeko aukera ematen du. Bestetik, izaerak pertsona batek ingurune batetik ikasteko modua ezagutzeko aukera ere ematen du. Izaera gizabanako batek duen egitura dinamikoa da eta ezaugarri psikologikoz, konduktualez, emozionalez eta sozialez osatuta dago. Hortaz, izaerak zehaztu egiten du nor den pertsona bakoitza eta ingurune batean nola adierazten garen (Seelbach, 2013).

Etxadi familia- psikologia unibertsitate zentroak adierazi zuen bezala, izaera alderdi biologikoekin dago estuki erlazionatuta, hau da, gurasoengandik jasotzen dugun karga genetikoarekin (karakterea, aiurria). Nortasuna, bestalde, bizitzan zehar, testuinguru desberdinekin elkarrekintzan, barneratzen joan garen jokabide-ohituren multzoa da eta ikaskuntzak baldintzatzen du. Ezaugarri horiei esker da pertsona bakoitza bakarra eta errepikaezina (Etxadi, d.g).

Seelbach-ek (2013) izaera pertsonala bi osagaiak osatzen dutela adierazi zuen: aiurria eta karakterea:

- Aiurria: Aiurria izaeraren osagai bat da kognizioaren, jarreraren eta emozioen ezaugarri konkretu batzuk zehazten dituelako.
- Karakterea: Ingurunean ikasitako izaeraren ezaugarriei esaten zaie. Adibidez, gizakiok sentimenduekin jaiotzen gara baina hauek adierazteko moduak karakterearen parte dira.

Arau sozialak, jarrerak eta hizkuntza karakterearen osagai batzuk dira.

3.2 FAMILIEN ERAGINA

Familiak haurren garapenean duen eraginari buruz hitz egiten hasteko, ezinbestekoa ikusten dut haurren sozializazio etapei buruz lerro batzuk idaztea, izan ere, familia haurren lehen sozializazio etaparen eragile garrantzitsuenetakoa da.

Soziologiako hiztegiak honela definitzen du sozializazio hitza: “Pertsona batek bizi den gizartearen eskakizunei moldatzeko prozesuari esaten zaio. Sozializazioa estuki lotuta dago ikaskuntzari eta izaeraren formakuntzari, izan ere, hau eboluzio prozesu baten bitartez burutzen da”. Sozializazio prozesuak bizitza osoa irauten du baina hiru etapa nagusi bereiz daitezke: lehen sozializazioa, bigarren sozializazioa eta hirugarren sozializazioa hain zuzen ere (Giner, Lamo de Espinosa, Torres, 2000).

- Lehenengo sozializazioa: Haurtzaroan garatu egiten da eta gizarteko elementu garrantzitsuenak barneratzen dira, hizkuntza, genero identitatea, klase identitatea eta abar. Etapa hau oso inklusiboa da indibidualtasunaren arlo gehienetara zabaltzen delako. Hortaz, gehien irauten duen etapa da eta modu akritiko batean ematen da. Gizarte eragile garrantzitsuenak gurasoak dira.
- Bigarren sozializazioa: Etapa hau bizitzan zehar erabilgarriak izango diren balore eta arau konkretu batzuen barneraketan datza. Etapa honen eragile garrantzitsuenak adin berdineko pertsonak eta instituzioak izango dira, hauen artean eskola nabarmenduz.
- Hirugarren sozializazioa: Etapa honetan gizabanakoak aurretik ikasitako guztia erlatibizatuko du testuinguru sozial baten barnean eta beste gizarte edo kultura bateko arauak eta baloreak barneratzea nahiago izango du.

Soziologiako hiztegiak esaten duen bezala, gizarte eragileak norbanakoa erlazionatzen eta haiengandik jokabide arau eta balio sozialak eskuratzen dituen pertsonak (eragile pertsonalak) eta instituzioak eta komunikabideak (eragile inpersonalak) dira (Giner, Lamo de Espinosa, Torres 2000).

Familiaren eraginari buruz hitz egingo dudana heinean, lehenengo sozializazioan jarriko dut indargunea, baina horretarako, lehenengo familia zer den azaltzea beharrezkoa ikusten dut. Gaur egun, familiari buruz hitz egiten dugunean, ikuspuntu ezberdinetatik ulertu behar dugu kontzeptu hau. Askok familia gure gizartearen oinarritzko ardatz sozial eta kultural gisa ikusten dute, baina hori ez ezik, zibilizazio prozesuaren oinarritzko euskarria da. Izan ere, pertsonen hezkuntza prozesuaren eragile garrantzitsuenetakoa da (León, 2011).

Autore askok argi daukate umeen garapenean familien papera funtsezkoa dela, hala ere, autore guztientzat familia kontzeptuak ez du esanahi bera. Hortaz, Palacios-ek eta Rodrigo-k familia kontzeptua honela definitu zuten: “pertsona elkarte. Hain zuzen pertsona horiek elkarrekiko bizitza proiektu iraunkorra izatea nahi dute; kidesun-sentimendu sendoak sortzen dira eta kideen arteko konpromezu pertsonala dago eta, intimitate, elkarrekikotasun eta menpekotasun harreman estuak sortzen dira” (Rodrigo eta Palacios, 2001).

Aipatu beharra dago, gaur egungo gizartean ematen diren familia eredu ezberdinak eta duela urte batzuk gizartean nabarmentzen zen familia eredu tradizionala oso ezberdinak direla. Aldaketa hau azken hamarkadetan emandako faktore politiko, ekonomiko, sozial zein kulturalen eraginez sortu da familia tradizional kontzeptuari aldaketa nabarmen bat emanez eta familia eredu desberdinei aukera emanez (León, 2011).

Hezkuntza prozesu luzea da, eta familia arduratzen da prozesu honen hasieraz, ondoren eskolan prozesu honi jarraipen bat emanez. Haurraren hezkuntza garapena zein garapen pertsonala eman dadin, ezinbestekoa da bi instituzio hauen parte hartzea. Horregatik eskolak familien parte hartzeak duen garrantzia onartu behar du (Bolívar, 2006).

Haurraren lehenengo sozializatorako familiaren arlo afektiboa ezinbestekoa da (irizpideak, jarrerak eta baloreak, arauak, autokontrola, ardurak, oreka emozionala, garapen soziala, autonomiaren garapena...). Umearen lehenengo urteetan, familiak haurraren eta ingurunearen arteko bitartekaria izango da eta garapen pertsonalean zein sozialean funtsezko rol bat jokatu du (Bolívar, 2006).

Familia eta eskola haurren hezkuntzan eragin zuzena duten bi instituzio nagusiak dira. Horregatik bi instituzio hauek ezin dituzte euren funtzioak modu isolatu batean garatu. Bolívarrek aipatu zuzen bezala, eskola ez da hezkuntza testuinguru bakarra, familiak eta komunikabideek ere berebiziko garrantzia dute haurren hezkuntzan. Hortaz, eskolak ezin du bere kabuz haurren formakuntza beharrak asetu eta hezkuntza sistemak gurasoekin elkarlanean aritu behar da (Ortiz, 2011).

Hala ere, instituzio integratzaile hau zalantzatan dago gaur egun. Lehen familia eta eskolaren funtzioak banatuta zeuden (“eskolak irakasten du, familiak hezten du”), baina gaur egun, eskola bi funtzio hauek metatzen ari da, eta modu batean esanda, lehen sozializazioko formakuntza onartzera behartuta dago (Bolívar, 2006).

Honen arrazoia historian zehar gertatu izan diren aldaketa sozialak izan dira. Industrializazioaren eraginez, emakumea lan mundura sartu zen eta haurren lehenengo urteetan, hauen heziketa eta zaintzari dagokionean, hutsune nabari bat somatu zen. Horren

eraginez, funtzio horiek betetzen zituzten instituzio berriak sortu behar izan ziren. Gainera, gaur egungo gizartea lehiakorra, kontsumista eta kapitalista da, eta honen ondorioz, familian egoteko denbora murriztu egin da, lanari gehiegizko denbora eskaintzen baitiogu. Denbora falta hau familian eragin zuzena du, familiak dituen funtzio garrantzitsuak alde batera utziz (León, 2011).

Argi dago familiak izugarriko eragina duela haurren garapen sozioafektiboan, ereduak, baloreak, arauak, rolak eta gaitasunak haurtzaroak ikasten baitira. Haurtzaroa erabat lotuta dago arazoan ebazpenekin, gaitasun sozialekin, jarrera prosozialekin eta erregulazio emozionalarekin beste batzuen artean. Nahiz eta umeen garapenean eragiten duten faktoreak anitzak izan, familiaren eraginak ekar ditzakeen arazo psikologikoak identifikatzea garrantzitsua da, haur depresioa, agresibitatea eta autoestimu falta besteak beste (Cuervo, 2010).

Errealitate honek bi instituzio hauen elkarlanaren beharra eskatzen du. Eskolak eta familiak modu kooperatiboan eta lankidetzan egin behar dute lan balore eta arau jakin batzuk transmititzerako orduan. Izan ere, euren helburua berdina izango da: haurren garapena sustatzea ardatz nagusiak autonomia eta erantzukizuna izanik. Horretarako, ezinbestekoa izango da ardura banaketa eta heziketa ekintzen banaketa eskola eta familiaren artean ume arduratsuek, autonomoak eta ekintzekiko kritikoak hezteko (León, 2011).

Garrantzitsua da irakasleak eta familiak elkarlan honi buruz kontzientziaztea, izan ere, elkarlan hau modu egoki batean ematen bada, eragin zuzena izango du haurren izaeraren garapenean. Baina hau ez ezik, eragin positibo bat izango du ere prozesu honetan murgildu diren pertsona guztiengan (Hendersons in León, 2011). Ardura sozialaren garapena sustatzen da, harreman interpersonalen kalitatea hobetzen da eta eskola porrota ekiditzen da (Kñallinsky in León, 2011).

3.3 AUTONOMIA ETA AUTOESTIMUAREN GARAPENA AUTORE EZBERDINEN USTEETAN.

Badaude autonomia eta autoestimuen garapena eta hauen garrantzia landu duten hainbat autore. Marko teorikoaren atal honetan, nire ustez interesgarriak diren autore ezberdinen teoriak azalduko ditut.

3.3.1 PIAGET

Piaget-en esanetan, autonomia bakoitzak bere burua gobernatzea da. Kontrakoa ordea, heteronimia da, hau da, besteek gobernatua izatea. Aurretik aipatu izan dudan bezala, autore honen teoriak haurra babesgabea eta heteronomoa jaiotzen dela esaten du. Hortaz, ikuspuntu ideal batetik, haurra hazten den heinean, euren autonomia ere garatzen joaten da bi arlo ezberdinetan: arlo moralean eta arlo intelektualean. Modu horretan, umea hazten denean, autonomia maila igotzen da eta heteronomo izateari uzten dio poliki-poliki. Beste modu batean esanda, bere burua gobernatzeko gai denean, gero eta gutxiago egongo da besteen arauen edo aginduen menpe (Kamii eta López, 1982).

Hezitzaile eta guraso askorentzat badago galdera garrantzitsu bat: Nola lortzen dute umeek pertsona autonomoak izatea? Honekin lotuta, kontuan izan behar dugu Piaget-ek garrantzi handia ematen ziola umeak arauekin izandako harremanari (Piaget in Galindo, 2012). Hortaz, galdera honen aurrean, Piaget-ek nagusiek zigor eta sarien bitartez haurren heteronomia bultzatzen dutela adierazi zuen. Autonomiaren garapena sustatzeko, erabakiak hartzerako orduan haurrekin ikuspuntu ezberdinak partekatu behar direla azaldu zuen. Adibidez, Ume batek gezurra esaten duenean, hau zigortu ordez, berarekin negoziatu dezakegu. Hau da, umeari zuzenean gezurra esaten ari dela adierazi beharrean, umeak esan duena zalantzan jarri edo beste ikuspuntu bat adierazi beharko diogu. Izan ere, horrela, haurra konturatuko da beste pertsonak ez duela sinisten eta sinestua izateko zer egin behar duen pentsatu beharko du, era horretan autonomia sustatuz (Kamii eta López, 1982).

Piaget-en esanetan, zigorrek hiru ondorio ekar ditzakete. Alde batetik, haurra hurrengo batean txarto egindakoa errepikatuko du eta harrapatua ez izaten saiatuko da. Bestalde, ondorioa onespina izan daiteke, eta honen eraginez, umea menderatua izango da eta ez ditu erabakiak hartuko, izan ere, egiten duten guztia besteen aginduen menpe egongo da. Azkenengo ondorioa matxinada izan daiteke. Kasu honetan, umea urte askotan zehar “ona” eta “obedientea” izan denez, momentu batean nahi duena egitea erabakiko du. Egoera honetan umeak hartutako jarrera autonomoa dirudien arren, ezin dezakegu jarrera autonomoa eta matxinada nahastu. Matxinadan haurra konformismoaren kontra dago, baina konformista ez izateak ez du esan nahi pertsona autonomoa denik. Hortaz, zigorrek umeen heteronimia bultzatzen dutela eta hauen autonomia oztokatzen duela ondorioztatu dezakegu (Kamii eta López, 1982).

3.3.2 PIKLER

Pikler- Lóczy hezkuntza haurraren lehenengo urteetara bideratuta dago. Hala ere, hezkuntza mota honek umeen autonomia bereziki lantzen duenez, interesgarria iruditzen zait

hitz batzuk autore honi eskaintzea. Gainera, ezin dezakegu ahaztu ikaskuntza prozesu luze bat dela eta autonomia txikitatik landu beharreko alderdia dela. Hortaz, lehen hezkuntzako irakaslea izanik, beharrezkoa ikusten dut haur hezkuntzan lantzen dena ezagutzea ondoren honi jarraipen bat eman ahal izateko.

Emmi Pikler pediatrik ume txikiarekiko zuen ikuspegia hurrengoa zen: ume txikia aktiboa da, erabakiak hartzeko eta bere kabuz moldatzeko gai dena. Pikler behaketan oinarritzen zen eta helduaren interbentzioa alde batera uztea bultzatzen zuen. Izan ere, haurrak bere esperientzia propioa bereganatu behar du modu autonomo batean autonomia garapen prozesuaren parte baita. Gauzak horrela, haurren garapena askatasun osoz gertatuko da. Honekin batera, Piklerrek umeak euren interesen arabera mugitzen direla azaltzen zuen eta orokorrean, umeek euren prozesuaren gidari egiten gaituztela, helduaren rola bigarren plano batean utziz. Hau da, helduak haurra behatzen eta zaintzen du baina ez du modu zuzen batean esku hartzen (Izagirre, 2013).

Pikler-ek errespetu eta konfiantza handia zuen haurrengan. Bere esanetan, euren kabuz erabakiak hartzeko aukera duten haurrek ikaskuntza esanguratsua eta kalitatezkoa lortzen dute. Gainera, haurrek nagusien laguntzarik gabe ibiltzen ikasten dutela defendatzen du. Modu horretan, askatasuna duen umeak bere gorputza eta bere mugak ezagutzen eta bere lorpenak baloratzen ikasiko du. Ume babestuak, ordea, nagusiek espero dutena lortuko dute. Umeei askatasunez jokatzeko uzteak umeak autonomoak izatea eta euren interesen eta motibazioen arabera mugitzea eragingo du. Ume babestuak, aldiz, pasiboak izaten dira euren garapen prozesuan eta ez dituzte motibazio nabarmenik. Helduek esaten dutena betetzeko asmoz egiten dituzte ekintza gehienak helduekiko menpekotasun egoera sortuz eta autonomia alde batera utziz (Izagirre, 2013).

Pikler- Lóczy taldeak lau printzipio nagusi diseinatu zituen hainbat pediatrian, pedagogoen, psikologoaren eta erizainen laguntzaz (David eta Appel in Izagirre, 2013):

- 1) Haurren aktibitate autonomoa oso baliotsua da.
- 2) Haurren eta helduaren arteko harreman pertsonalen egonkortasunak euskarri emozionala sortzen du haurrengan. Batez ere, haurrak bere erreferentziazko helduarekin duen harremanaren egonkortasunak.
- 3) Haurrak etengabeko laguntza behar du bere buruarekiko eta bere ingurunearekiko kontzientzia progresiboa izateko, beti ere bere garapen maila kontuan hartuz.
- 4) Aurreko printzipioak martxan jartzearen ondorioa umearen ongizate fisikoa da.

3.3.3 MASLOW

Gaur egun arte autoestimua landu duten teorien artean Abraham Maslow da garrantzitsuenetakoa. Autore honek bere teoria garatu zuen zenbait primateekin hainbat esperimentu egin ondoren. Maslow-k gizakien nortasuna euren beharren lehentasunen arabera sortzen dela azaldu zuen. Hau da, gizakien beharrak behatu zituen eta behar batzuk beste batzuegan lehentasuna zutela ondorioztatu zuen. Hortik abiatuta, hierarkizatuta agertzen diren beharren piramide bat diseinatu zuen. Piramide honen egitura oinarriko beharretatik hasten da garrantzi handiko beharretan bukatuz. Hona hemen Maslow-k diseinatutako piramidea (Boeree, 2006):



1. Irudia: Pirámide de Maslow. López, V (2017)

Jarraian, piramidearen maila bakoitza azalduko dut Castellanak (2010) azaldu zituen bezala:

- **Behar fisiologikoak:** Behar hauek organismoa bizirik mantentzen dute. Elikadurari, oreka termikoari, atsedinari, lo egiteari, hondakinen kanporaketari, aktibo mantentzeari, mina saihesteari eta abar egiten die erreferentzia. Behar hauek asetzea ez da hautazkoa, izan ere, asetu ezean, organismoa hil daiteke.
- **Babes eta ziurtasun beharrak:** Behar fisiologikoak asebetu daudenean sortzen dira behar hauek, babesa eta egonkortasuna ahalbidetzen dutenak. Esate baterako, etxebizitza bat bilatzea, lanpostu egonkor bat izatea...
- **Maitasun eta afiliazio beharrak:** Aurreko beharrak asetzen direnean, laguntasunaren beharra, bikote baten beharra eta harreman afektiboaren beharrak sentitzen ditugu. Gizaki askok bakarrik geratzearen beldur dira. Bestalde, Maslow-k maila honetatik aurrera behar psikologikoak sortzen direla azaldu zuen, hauek ez baitira beharrezkoak bizirauteko.

- Estima beharrak: Behin aurreko behar guztiak asebate, estimaz kezkatzen hasten gara. Maslow-k estima beharraren bi bertsio deskribatu zituen, alde batetik estima altua eta bestetik, estima baxua. Estima baxuak besteen errespetuari, estatus on baten beharrari, ospeari, errekonozimenduari, atentzioari eta nagusitasunari egiten dio erreferentzia. Estima altuak, aldiz, bakoitzak bere buruarengan duen errespetuari egiten dio erreferentzia, konfiantza, lorpenak, independentzia eta askatasuna barnebilduz. Maslow-k azken hau estima altua zela zioen behin norberak bere buruarengan errespetua garatua izanda, egonkorragoa delako eta hau galtzea zailagoa delako.
- Norberaren errealizazioaren beharrak: Azken maila hau beste guztien artean zailena da lortzen. Hori dela eta, gizaki guztiek ez dituzte behar hauek asetzen. Transzendentziak ez dugula ezeren beharra adierazten du eta gutxi irauten duen sentsazioa da. Sentsazio hau lortzea zaila den arren, ez da ezinezkoa. Maslow-k “momentos cumbre” izendatu zituen, adibidez, seme-alabak izatea, proiektu garrantzitsu bat bukatzea, meritu baten errekonozimendua... Maslow-ren esanetan, pertsonak piramide honen maila guztietatik pasatzea idealena izango litzatekeela, baina batzuetan gizartearen eraginez ez dela posible azaldu zuen.

Maslow-rentzat ume batek autoestimua eraikitzeko motibazioa izango du behar fisiologikoak, babes beharrak eta maitasun eta afiliazio beharrak asetzen dituzenean, horregatik oso garrantzitsua da haurrak inguratzen duten nagusiek behar hauetan arreta jartzea (Ferrerós, 2007).

3.4 IRAKASLEEN ERAGINA IKASLEEN AUTOESTIMUAN ETA AUTONOMIAN

Aurreko puntuetan behin baino gehiagotan aipatu izan dudana bezala, autonomia eta autoestimua garapena ez da egun batetik bestera gertatzen den prozesua, iraupen handiko prozesua baita. Hortaz, eskolatzeko prozesuan autoestimua eta autonomiaren garapenak jarraitzen du, beraz, atal honetan irakasle batek bere ikasleen autoestimuan eta autonomian izan dezakeen eragina azalduko da.

Lehen Hezkuntzan zehar, ikasleek egiten duten gauza guztiengatik etengabeko ebaluazioa jasotzen dute, eta honek eragin zuzena izango du ikasleen autoestimuan. Autoestimua eragina izango du ere errendimendu akademikoan. Autokontzeptu baxua izateak eragin negatiboa izango du ikasleen errendimendu akademikoan aldi berean autoestimuan ere eragina sortuz (Ramos et al, 2006).

Gelan sortzen den klimaren arabera, ikasle baten autoestimua modu batean edo bestean azaleratuko da ikasleak egindako ekintza ezberdinen bitartez. Ikaslearen autoestimua eta jarrera sozialaren artean lotura zuzena aurki dezakegu “Barnerakoitasun-kanporakoitasun” jarreraren bitartez. Modu horretan, autoestimua baxua edo negatiboa duen haurrak jarrera lotsatia izango du gainontzeko ikasleekin eta lagun eskas izango ditu gela barruan. Gainera, amore eman beharko du bere jarreretan baztertua ez izateko (Vega, 2010).

Autoestimua altua edo positiboa duen ikaslea, ordea, ondo ezagutzen du bere burua, bai alde onak, bai alde txarrak. Gainera, badaki ezaugarri horiek direla beste pertsonengandik ezberdina egiten dutenak eta horregatik bere burua baloratu egiten du. Honekin batera, esan beharra dago beste faktore batzuk laguntzen dutela norberak bere buruarekiko egiten duen balorazioan, esate baterako, familia. Hortaz, ez da bakarrik geratzearen beldur izango, bere buruarekiko errespetua duelako eta besteak errespetatzen dituelako (Vega, 2010).

Lehenengo hariari jarraituz, ikaskuntza prozesuari aurre egiteko era modu berean gertatzen da. Autoestimua on bat izateak ez du eskola arrakasta ziurtatzen baina ikasleak ikaskuntza prozesuarekiko jarrera positibo eta onuragarria izatea ahalbidetuko du. Gainera, bere akatsak onartuko ditu eta akats horiek abiapuntutzat hartuz, ikaskuntza eraikiko du bere kabuz. Autoestimua baxua duen ikasle batek, ordea, ezezaguna den zeregin baten aurrean, seguruenik ez da ausartuko zalantzak galdetzerara eta frustrazioaren eraginez, zeregina alde batera utziko du (Vega, 2010).

González Pineda (2003) aurrekoarekin bat dator. Bere esanetan, errendimendu akademikoan testuinguruaren aldagai sozialek (familia, berdinen arteko taldeak...), aldagai instituzionalek (eskola, irakasleen formakuntza...) eta aldagai instrukzionalek (edukiak, irakats metodoak, zereginak eta jarduerak, teknologia berriak...) eragiten duten bezala, faktore pertsonalek ere eragiten dute. Bai aldagai motibatzaileek (autokontzeptua, ikaskuntza helburuak eta aurrezagutzak) eta baita aldagai kognitiboek (adimena, gaitasunak...) ere. Autore honek errendimendu akademikoa baldintzatzen duten faktore nagusienak faktore pertsonalak direla, konkretuki aldagai kognitiboek. Izan ere, hauek dira umeari ikasten ikasteko gaitasuna garatzen ahalbidetzen dutenak (González Pineda, 2003).

Aurreko guztia kontuan hartuta, argi dago irakasleak paper garrantzitsu bat jokatu behar duela gela barruan ikasleak autoestimua egokia izan dezaten, modu horretan ikaskuntza prozesua aberasgarriagoa izan dadin. Hona hemen García Bacetek eta Doménech Betoretzek (2002) aipatutakoa:

«El papel del profesor es fundamental en la formación y cambio del autoconcepto académico y social de los estudiantes. El profesor es la persona más influyente dentro del aula por tanto el alumno valora mucho sus opiniones y el trato que recibe de él» (García Bacete y Doménech Betoret, 2002).

Aipu honekin argi ikus dezakegu nola Pigmalion efektuak ikasleengan eragin zuzena duen, iritziak eta jasotako trataera baloratuz. Eragin hau positiboa zein negatiboa izan daiteke. Irakasleak ez ezik, familiak ere badu eragin handia ikasleengan. Segun eta familiak zein irakasleak umea nola tratatzen duten, ikaslearen motibazioak eta autoestimua gora edo behera egingo dute. Izan ere, Pigmalion efektuak adierazten duen moduan, gizabanako batengan izandako espektatibak gero eta handiagoak izan, orduan eta hobeak izango dira gizabanako honek lortutako emaitzak (Porcat Raro et al, 2013).

3.5 CURRÍCULUM OFIZIALETAN AUTONOMIARI EGINDAKO AIPAMENAK

Marko teorikoaren atal honetan, Eusko Jaurlaritzak 2015. urtean egindako Oinarrizko Hezkuntzarako curriculum Dekretua aintzat hartuko da. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntza alorrean marko teoriko honetan zehar hainbeste alditan errepikatu izan den autonomia kontzeptuari zernolako garrantzia ematen zaion azalduko da.

Eusko Jaurlaritzaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan ezarrita dagoen hezkuntza sistema konpetentzien arabeko hezkuntza da. Hortaz, konstruktibismoa eta soziokonstruktibismoa dira batez ere planteamendu metodologiko honen oinarrian dauden teoriak. Ikuspuntu horretan, kulturaren eta gizartearen testuinguruetan moldatzeko, ikaslea bere bizitzaren eta bere ikaskuntza prozesuaren protagonista da. Hartara, garapen-autonomia, norbera izaten ikasteko eta taldeko partaide zein partaide aktiboa izateko, beharrezkoak diren alderdiak ikusarazten dituzte teoria horiek. Denek bultzatzen dituzte jakin-mina, ikasteko interesa, sormena, motibazioa, kritikotasuna eta gizakiok elkarrekin aritzeko dugun joera (Eusko Jaurlaritza, 2015).

Beraz, ikuspuntu inklusibotik eta ikasleen aniztasuna kontuan hartu eta guztien arrakasta bermatuko duen eskola lortzeko asmoz, honako hauek dira apendizaiak aktiboari laguntzeko eta oinarrizko konpetentziak garatzeko zenbait gako: Ikaslearen autonomiari laguntzea. Ikasleek gero eta modu autonomoagoan jarduteko, transmisio hutsezko ikaskuntza mugatu. Irakasleak, hezitzaile, bidaide den heinean, gero eta autonomia handiagoz jokatu behar duen ikasleari aukerak eman behar dizkio beti ere ikasleak egiten duen esfortzua eta

egitekoekiko konpromisoa balioetsiz. Hartara, garapeneko autonomia bultzatuko da (Eusko Jaurlaritza, 2015).

Aurretik aipatutako dekretuan zehar, askotan aipatzen da autonomia hitza. Oinarrizko zehar kompetentzia guztietan ikasleek autonomiaz jokatu behar dutela adierazten da, ikasle kritikoak hezitu behar ditugula azalduz. Horregatik, norberaren autonomia garatzen laguntzen duten zenbait egoera aipatzen dira hurrekin autonomia lantzeko. Esate baterako, arazo-egoera ezberdinak landu ikasleek gogoeta kritikoa egin dezaten. Izan ere, modu horretan euren pentsamendua autoerregulatzen dute eta elkarrekin loturiko jarrerak barneratzen dituzte; hala nola, jarrera autokritikoa, erabakiak hartzeko jarrera eta berrikuntzen aldeko jarrera. Norberaren autonomia garatzen laguntzen dute horiek guztiek (Eusko Jaurlaritza, 2015).

Oinarrizko zehar kompetentzietan ikasleen autonomia aipatzeaz aparte, oinarrizko disziplina barneko kompetentzien helburuetan ere askotan aipatu egiten da. Irakasgai gehienetan ikasleak gero eta autonomia handiagoz jardutea bultzatzen da. Hona hemen Kompetentzia Motorretik ateratako adibidea: “Ikasgai honetako edukiak egituratzeko bereizi diren multzo horietan, modu integratuan aurkeztu dira kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak. Proposatutako sekuentziazioaren helburua da ikasleak gero eta autonomia handiagoa izatea jarduera fisikoa egitean. Bestalde, adin horretan gaitasun kognitiboak handiagoak direnez, jarduerak praktikan jartzeko moduak ezagutzera bidera daiteke heziketa, horrela ikasle bakoitzak hauta ditzan, bere gaitasunen, interesen eta beharren arabera.” (Eusko Jaurlaritza, 2015).

3.6 HEZKUNTZA EMOZIONALA

Hezkuntza emozionala prozesu hezitzaile, jarraia eta iraunkorra da, kompetentzia emozionalak garatzeko asmoa duena, modu horretan ongizate pertsonala zein soziala areagotzeko eta bizitzarako prestatzeko. Kompetentzia emozionala esaten dugunean, fenomeno emozionalak ulertzeko, adierazteko eta hauen inguruan kontzientzia hartzeko beharrezkoak diren ezagutzen, gaitasunen, trebetasunen eta jarreraren multzoari erreferentzia egiten diogu. Kompetentzia emozionalen barruan, kontzientzia, erregulazio emozionala, autonomia emozionala, kompetentzia sozialak, bizi gaitasunak eta ongizatea aurki daitezke (Bisquerra, 2000).

Kompetentzia emozionalen garapena prozesu luze bat da, horregatik, hezkuntza emozionala bizitzaren lehenengo urteetan hasten da eta bizitza osoan zehar presente egon

behar du. Arrazoi honengatik haur hezkuntzan, lehen hezkuntzan, derrigorrezko bigarren hezkuntzan, familian, nagusien formakuntzan, erakundeetan... presente egon beharko litzateke (Bisquerra, 2000).

Manuel Álvarez-ek, Rafalel Bisquerra-k, Eva Fita-k, Francesc Martínez-ek eta Nuria Pérez-ek (2000) hezkuntza emozionalaren zortzi helburu hauek adierazi zituzten:

- a) Norberaren emozioei buruzko ezagutza sakonagoa eskuratzea autokontzeptuaren alderdi garrantzitsu gisa.
- b) Besteen emozioak identifikatzea harreman interpersonalak hobetzeko.
- c) Emozioak modu egokian kudeatzeko gaitasuna garatzea.
- d) Emozio negatiboek eragin dezaketen efektuak saihestea (haserrea, beldurra, estresa, depresioa eta abar).
- e) Emozio positiboak esperimendatzeko gaitasuna garatzea (poza, umorea, maitasuna, zorientasuna).
- f) Inteligentzia emozionala eta konpetentzia emozionalak garatzea.
- g) Automotibatzeko gaitasuna garatzea.
- h) Bizitzarekiko jarrera positiboa izatea.

Aurretik aipatu izan den bezala, hezkuntza emozionalaren helburu garrantzitsuenetako konpetentzia emozionalen eta ongizatearen garapena da. Beste autore batzuen artean, Rafael Bisquerra-k zorientasunaren inguruan hitz egin zuen. Bere esanetan, Hezkuntza sistemaren helburu gorenetakoa bat ikasle zorientatuak hezteak izan beharko litzateke. Hortaz, eskolak ezagutzak transmititzeaz aparte, balore positiboak, inteligentzia interpersonala eta intrapersonala lantzeko lekua ere izan beharko litzateke. Zorientasuna askotan bide desegokitik bilatzen da, eta bide hauek arrisku jarreretara eramaten gaitzake. Ongizatearen zientziak eta konkretuki psikologia positiboak, inteligentzia emozionalak eta hezkuntza emozionalak funtzionatzeko duenari eta funtzionatzeko ez duenari buruzko ebidentziak azaltzen dituzte. Ezagutza hauek hezkuntzaren esku egon beharko litzateke bizitzarako oinarrizko konpetentziak garatzeko eta ongizatea lortzeko helburuarekin (Bisquerra, 2000).

Gizarte honetan, pertsona azkarraren kontzeptuari buruz hainbat balorazio egin dira. Eskola tradizionalan, ikasle bat oso adimentsua zela esaten zen nota oso onak ateratzen zituenean edota, irakasgai guztiak ondo menperatzen zituenean. Oraindik ume adimentsua koefiziente intelektualarekin lotzen da, hau da, adimena neurtzen duten testek bidez sailkatzen dira ume adimentsuak. Esan beharra dago, bi ikuspegi hauek zalantzan jarri direla XXI. mendean bi arrazoiengatik. Lehenik eta behin, arrakasta profesionala eskuratzeko adimen akademikoarekin nahikoa ez delako. Hona hemen adibide bat: gaur egungo mediku, irakasle, abokatu eta enpresaburu ospetsuenak ez dira bere promozioetako ikaslerik adimentsuenak,

baina, bere emozioak eta hauen kudeaketa ondo ezagutzen zuten euren adimenean eragin positiboa zuelako. Eta bigarrenik, inteligentziak bizitzan ez duelako arrakasta bermatzen. Zehatzago esanda, pertsona baten koefiziente intelektualak ez du inolako eraginik bere oreka emozionalean ezta bere osasun mentalean ere (Fernández- Berrocal eta Extremera Pacheco, 2002).

Goleman (in Roca, 2013) autoreak, adimen emozionala bi arlo ezberdinetan banatu zituen:

- Adimen emozional intrapertsonala: Norberarekin komunikatzeko eta norberaren emozioak kudeatzeko gaitasuna da. Autokontzientzia emozionalak autorregulazioak eta automotibazioak osatzen dute arlo hau.
- Adimen emozional interpertsonala: Besteen emozioak ulertzeko eta kudeatzeko gaitasuna da, enpatiari eta gaitasun sozialei erreferentzia egiten diena.

Elia Roca-ren esanetan, adimen emozionalak lotura zuzena dauka autoestimua eta gaitasun sozialekin. Nahiz eta adimen emozionala emozioetan oinarritzen den, hauek lotuta daude ezagutzekin eta jarrerekin. Hortaz, jarrera hauek autoestimu positiboa eta gaitasun sozialak osatzen dituzte (Roca, 2013).

Rafael Bisquerra-k (2016) konpetentzia emozionalak eskuratzeak dakartzan onurak adierazi zituen. Beste batzuen artean, harreman sozialen eta interpertsonalen hobekuntza, arazoekiko erantzun positiboa erraztea, osasun fisiko eta mentala ahalbidetzea eta errendimendu akademikoa hobetzea. Atal honi amaiera emateko, esan dezakegu harreman sozialetan eta arlo pertsonalean sortutako hainbat arazoren jatorria “analfabetismo emozionala” izan daitekela. Hortaz, konpetentzia emozionalen garapenak hezkuntza emozionalaren bidez bizitzaren alderdi desberdinetara positiboki eragin diezaiokeen aldetik, hauek lantzearen beharra ikusten da.

3.7 AUTONOMIA ETA IZAERA LANTZEKO PROPOSAMEN BAT: KONFIANTZAREN PEDAGOGIA.

Ikasleekin autonomia eta izaera lantzeko hainbat pedagogia, metodologia zein proiektu daude. Marko teorikoaren azken atal honetan, batez ere Konfiantzaren Pedagogiari emango zaio garrantzia. Izan ere, R.W Emerson olerkari estatubatuarrak zioen bezala: “Norberagan konfiantza izatea arrakastaren gakoa da” (Emerson in Antero, 2015).

“Gure espezieak dituen ezaugarrien artetik heziketa- jarduna da bereizgarrietakoa, biziraupenerako eta eraldaketarako prozesu sozializatailea eta eraikitzailea den heinean. Dimentsio pertsonala, soziala eta inguruarena dira heziketa- lan horren aldeak. Eta ariketa indibidual eta kolektibo horrek segurtasuna behar du oinarrian, Konfidantza.” (Etxezarreta in Antero, 2015).

Pertsonaren garapenerako eta zorientasunerako oinarriak Haur Hezkuntzatik finkatzen hasten dira. Hau da, haurrak bere buruaz izango duen autokontzeptua, besteekiko izango duena, autokonfiantza, besteekiko konfiantza... Hala ere, nahiz eta haurren bizitzako lehenengo urteek sekulako garrantzia izan, pertsona, testuinguruak laguntzen dion neurrian, bizitza osoan zehar doa pertsona moduan hezten eta garatzen. Hortaz, eskolak garrantzi handia izango du garapen prozesu honetan eta Haur Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara landu beharreko prozesua izan beharko litzateke (Antero, 2015).

Hezkuntzaren paradigma tradizionala eta egun ere neurri handi batean indarrean dagoena, agortuta dagoela diote hezkuntza- adituek eta sakoneko eraldaketa pedagogikoetan murgilduta dauden ikastetxe berritzaileek. Arizmendi Ikastola da ikastetxe berritzaileen adibide bat. Arizmendi Ikastolako irakasleek hezkuntzaren paradigma tradizionala bi arrazoiengatik agortuta dagoela diote. Alde batetik, pedagogia tradizionalak ez dituelako pertsonaren garapen legeak errespetatzen, eta bestalde, ez dituelako ikasleak egungo eta are gutxiago etorkizuneko beharretarako prestatzen. Hortaz, beste era batera ikas eta irakats daiteke pertsonaren psikologia, emozioak eta burmuinaren funtzionamendua kontuan hartuta (Antero, 2015).

Jarraian, Konfiantzaren Pedagogiaren oinarri teoriko nabarmenenak gaineratik azalduko dira, Anterok (2015) Konfiantzaren pedagogia liburua aintzat hartuz:

- Senen behaketa etologian: Etologiak animalien zein gizakien portaerak aztertzen dituen heinean, senak pizten zaizkigula jakin ohi da. Sen hauek pizten direnean, garrantzitsua da pertsonak transmititzen dituen seinaleak interpretatzen jakitea eta behar hauei behar bezala erantzuten jakitea, pertsonaren garapen emozionala eta kognitiboa harmonikoa eta egokiak izan daitezen.
- Konduktismoetik pista batzuk: Konduktismoak ikaskuntzaren inguruan argigarriak diren azalpenak ematen ditu. Jokabide batzuk ikasprozesuaren emaitza direla erakusten digu: Paulov-en baldintzapen klasikoa, Skinner-ren baldintzapen eragilea eta Bandura-ren behaketa bidezko ikaskuntza.
- Pedagogia sozioeraikitzailea: Norbanakoak testuinguru errealean, esanguratsuetan eta funtzionaletan eraikitzen duen prozesua da ezagutza eta

egunero eraikitzen da, testuinguru askotan, aurrez ditugun ezagutzak ezagutza berriekin alderatuz eta uztartuz.

- Psikologia kognitiboa: Ezagutza aztertzeaz arduratzen den psikologiaren adar bat da. Ezagutza lantzeko oinarrikoak eta sakonak diren mekanismoak ikertzen ditu, hala nola: pertzepzioa, memoria, ikaskuntza, arrazoiak eta logikoa...
- Neurozientzia: Garunaren funtzionamenduaren inguruko azalpenez gain, psikologiaren, soziologiaren eta medikuntzaren ezagutzak integratzen ditu, ikasleen ikaskuntza- eta memoria- prozesuetan zein irakaskuntzaren prozesuetan hobekuntzak proposatzeko.

4. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Hona hemen Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusiak:

- Irakasleen autonomiari dagokionez, gaur egungo egoeraren inguruko irakasleen iritzia ezagutzea.
- Familien eta irakasleen eragina ikasleen autonomian eta autoestimuan ikertzea.
- Irakasleek autonomia eta hezkuntza emozionalari ematen dioten garrantzia aztertzea.
- Irakasleek autonomia eta hezkuntza emozionalarekiko duten formakuntza aztertzea.

Aurreko helburuak kontuan izanda, ondorengo hipotesiak planteatzen dira:

- Umeek gero eta autonomia gutxiago dute.
- Familiek zein irakasleek eragin handia dute ikasleen autonomian eta autoestimuan.
- Irakasleek autonomiari eta hezkuntza emozionalari ez diote behar duen garrantzia ematen.
- Irakasleen formakuntza gai hauekiko oso eskasa da.

5. METODOLOGIA

5.1 LAGINA

Ikerketa txiki hau aurrera eraman ahal izateko, Gasteizeko eskola bateko lau irakasleek eta auzo bereko beste ikastola bateko irakasle batek hartu dute parte. Ahalik eta informazio gehien eskuratzeko asmoz, arlo eta funtzio ezberdineko irakasleak elkarrizketatu dira. Sexuari dagokionez, lau emakume eta gizonezko bat izan dira elkarrizketatua. Adinari erreferentzia eginez, 30 urtetik 56 urtera bitarteko irakasleak izan dira. Hortaz, batzuk esperientzia handiko irakasleak dira eta besteen esperientzia, ordea, ez da hain handia.

Lehendabizi, eskola bateko zuzendaria elkarrizketatu da. Izan ere, eskola honetan aniztasun handia dagoen aldetik, askotan biltzen da familiekin eta gaur egungo egoera ondo ezagutzen du. Gainera, haur hezkuntzan urte asko eman ditu, eta ikasleen autonomiaren lanketa txikitatik landu beharreko prozesua den heinean, lan honetarako baliagarria izan daitekeen informazioa partekatu du.

Jarraitzeko, lehen hezkuntzako lehenengo zikloko bi irakasle elkarrizketatu dira, bata lehenengo mailakoa eta bestea, ordea, bigarren mailakoa. Izan ere, autonomiaren lanketak garrantzi handia hartzen du etapa honetan. Biek lehen hezkuntzako gradua ikasi zuten eta horietako batek, horretaz aparte, entzumena eta mintzaira minorra ere ikasi zuen.

Bukatzeko, gainontzeko bi irakasleak espezialistak dira, bata musikako irakaslea eta bestea gorputz hezkuntzako. Bi irakasle hauek elkarrizketatu dira arrazoi ezberdinengatik. Beste batzuen artean, irakasle hauek ez dituztelako tutore bat pasatzen dituen hainbeste ordu umeekin pasatzen, eta gela arruntetik kanpo emaitzak ezberdinak izan daitezke.

5.2 DATUAK BILTZEKO TRESNA

Ikerketa aurrera eraman ahal izateko, aurretik aipatutako irakasle bakoitzarekin elkarrizketa bat egin da. Elkarrizketa hau 12 galderak osatzen dute nahiz eta elkarrizketan zehar galdera gehiago sortu diren. Elkarrizketa prestatzeko, gradu amaierako lan honen helburuak kontuan hartu dira eta galderak kategoria ezberdinetan banatu izan dira. Galdera batzuk gaur egungo egoerara bideratu dira. Beste batzuk, irakasleek autonomiarekiko eta hezkuntza emozionalarekiko duten formakuntzara zuzendu dira, beste batzuk familiek eta irakasleek duten eraginari egin diote erreferentzia eta azkenik, irakasleek honi emandako garrantziari buruz galdetu da.

Galderak irekiak izan dira, beraz, metodo kualitatiboa erabili da. Hau da, ez daude erantzun zehatzik pertsona bakoitzak bere iritzia adierazten duelako. Gainera, galdera itxiak ez direnez, nahiz eta galdera bide batetik joan, erantzunak informazio gehigarriarekin luzatu daitezke, bakoitzak bere ikuspuntu eta esperientziatik hitz egiten duelako. Hortaz, erantzunak subjektiboak direnez, ezin dira zuzenean neurtu, interpretatu egin behar dira. Horregatik aurreko paragrafoan azaldu izan den bezala, galderak kategoriatan ezberdinetan banatu dira ondoren, erantzunen interpretazioak lotura izan dezaten.

5.3 PROZEDURA

Bost elkarrizketa hauek aurrera eramanez ahal izateko, harremana nuen irakasleekin egin ditut eta horrek asko erraztu du lan honen prozesua. Izan ere, irakasleekin konfiantza izanez gero, zintzotasun handiagoz jokatzeko dute galderen aurrean, eta nahiz eta gauza konkretu batez galdetu, bizi izandako anekdotak eta bizipen ezberdinak kontatu zizkidaten.

Lehenengo praktikaldia nire txikitako ikastolan burutu nuen, eta bertako irakasleari elkarrizketa egiteko proposatu nion. Ez zidan inolako arazorik jarri eta berarekin ikastolan bertan bildu nintzen patioko ordua libre zuelarik.

Azkenengo praktikaldia auzo bereko beste eskola batean gauzatu dut. Hortaz, bertako irakasleekin harremana mantentzen dudanez, ez nuen inolako arazorik izan elkarrizketak egiteko proposatzerako orduan. Eskolako zuzendariarekin bere bulegoan bildu nintzen, tutorearekin bere gelan, eta bi irakasle espezialistekin, hau da, musikako irakaslearekin eta gorputz hezkuntzako irakaslearekin, musika gelan bildu nintzen.

Elkarrizketa guztiak grabatuak izan ziren irakasleen baimenarekin. Izan ere, modu horretan, ez nuen denbora galtzen euren erantzunak zuzenean idazten eta aipatutako guztia ondoren idazteko aukera nuen. Hortaz, elkarrizketa guztien transkripzioak egin behar izan nituen irakasleek aipatutako informazio baliagarri guztia idatziz.

5.4 KATEGORIAK

Aurretik aipatu den bezala, elkarrizketako galderak kategoriatan ezberdinetan sailkatu dira, gradu amaierako lan honen helburuak kontuan hartuta. Nahiz eta elkarrizketa osoa eranskinetan izan (Ikus. 1.Eranskinean: Elkarrizketak, 41.or), hona hemen kategoriatan bakoitzaren izena eta kategoriatan bakoitzaren barnean egin izan diren galderak:

❖ **Gaur egungo egoera**

2. Irakasleen autonomiari dagokionez, nola uste duzu dagoela egoera gaur egun?
5. Irakaskuntzan esperientzia handia izatekotan, alderatu ahal dituzu gaur egungo ikasleak eta duela 10 urteko ikasleak? Umeak autonomoagoak dira orain edo lehen?

❖ **Familien eta irakasleen eragina**

6. Familiek gai honetan eragina dutela uste duzu?
7. Familiekin gai honen inguruan hitz egiten duzu? Autonomia lantzeko zerbait hitzartzen duzue?
9. Irakasleen autonomiak eta autoestimuak errendimendu akademikoan eragiten dutela uste duzu? Zergatik?
10. Irakasle batek bere ikasleen autonomian eta autoestimuak eragiten duela uste duzu? Nola?

❖ **Irakasleek autonomia eta hezkuntza emozionalari emandako garrantzia**

3. Zer nolako garrantzia ematen zaio/ diozu autonomiari eskolan? Arlo bakar batean lantzen duzu (tutoretza) edo arlo guztietan landu beharreko gaia dela uste duzu?
4. Autonomia lantzeko jarduera/ espazio/ material bereziak erabiltzen dituzu?
8. Hezkuntza emozionala lantzea garrantzitsua dela uste duzu? Irakasleekin latzen duzu? Horrela bada, nola?

❖ **Irakasleen formakuntza**

11. Autoestimua, adimen emozionala... lantzeko jarduera berezirik ezagutzen dituzu? Zeintzuk?
12. Gai hauen inguruan (autonomia, autoestimua, hezkuntza emozionala...) formakuntza nahikoa jaso duzula uste duzu (unibertsitatean eta ondoren berritzegune, adarra, garatu...)? Irakasleek honi buruz formakuntza gehiago izan beharko luketela uste duzu? Zergatik?

6. EMAITZAK

1. Gaur egungo egoera

Irakasleei autonomiari dagokionez, gaur egungo egoerari buruz galdetu diedanean, elkarrizketatutako irakasle guztiek gaur egungo umeak ez direla autonomoak azaldu dute. Lau irakasleek, denbora pasa ahala umeek gero eta autonomia gutxiago dutela adierazi dute, eta beste irakasle batek, ordea, ikasleen autonomia urte batzuetatik hona, orain hoberantz doala adierazi du. Azken honek, ikasturte honetan zehar ikasleen autonomian hobekuntzak ikusten hasi da. Bere ustez, gurasoak azken urteetan gabeziak egon direla konturatu dira eta gurasoak egoera aldatzeko prest ikusten ditu. Hala ere, elkarrizketatuak izan diren irakasle guztien usteetan, orokorrean, gabezia larri bat nabaritzen dute ikasleen autonomian. Irakasle batek umeek gero eta beranduago ikasten dutela egunerokotasuneko gauzak egiten adierazi du eta adibide sinpleekin azaldu du gaur egungo egoera. Esate baterako, ikasle askok ez dakitela lokarriak lotzen, botoiak lotzen ezta kremailetan lotzen ere. Gero eta gauza errazagoak ekartzen dituzte janzteko eta guzti horrek ikasleen autonomian eragin txarra sortzen du.

Bi irakasleek aurrekoaz aparte, ikasle autonomoenen eta autonomia gutxien dutenen artean desoreka handia dagoela azaldu dute. Hau da, ikasle batzuk euren adinerako autonomia maila handia duten bitartean, beste ikasle batzuen autonomia maila nahiko eskasa da. Desoreka honen arrazoia familiarekin lotu dute, baina familiaren eragina hurrengo puntuan azalduko da. Honekin batera, hauetako irakasle batek gure lana irakasle bezala desoreka hau orekatzea dela aipatu izan du.

Bestalde, gaur egungo egoerari buruz galdetzeaz aparte, esperientzia handia duten irakasleei gaur egungo ikasleak eta duela gutxi gora behera hamar urteko ikasleak alderatzeko eskatu zaie, autonomiari erreferentzia eginez, noski. Hezkuntzan urte asko daramatzaten irakasleak hiru dira. Batek 23 urte, besteak 31 eta azkenak 36 urte. Gainontzeko bi elkarrizketatuak gazteagoak dira, batek 10 urte darama eta besteak 8. Hortaz, esperientzia gehien duten irakasleengan informazio gehiago lortu da, nahiz eta beste bi irakasleengan ere informazio gehigarria lortu.

Esperientzia handiko irakasleek duela hamar urteko ikasleak gaur egungo ikasleak baino askoz autonomoagoak zirela baieztatu dute. Irakasle bat baino gehiagok gizartearen aldaketarekin lotu du honen arrazoia. Eskolako zuzendariak azaldu duen bezala, gizartea aldatzen doan heinean, familiak ere aldatu egiten dira eta gaur egungo gurasoek gero eta oztopo gehiago jartzen dizkiete umei autonomia garatzeko. Honekin lotuta, gorputz

hezkuntzako irakasleak adibide bat ipini du: “orain dela urte batzuk umeak txikitatik beraiek bakarrik joaten ziren eskolara eta hori gaur egun ia-ia ezinezkoa da”. Gaur egungo umeek familien partetik babes gehiago jasotzen dute beste garai bateko umeek baino.

2. Familien eta irakasleen eragina

Familien eraginari dagokionez, haurren autonomiaren garapenean familiek eragin zuzena dutela baieztatu dute irakasle guztiek. Irakasle batek baino gehiago etxeko egoerarekin lotu dute autonomiaren garapena. Normalean, egoera on batean dauden umeak, hau da, etxean babesa sentitzen dutenak, haien beharrak aseta dutenak eta etxetik jarraipen bat dutenak nahiko autonomoak izaten dira. Aldiz, etxetik babesa jasotzen ez duten umeak eta bertatik jarraipen bat ez dutenen umeen autonomia maila askoz baxuagoa izaten da.

Eskolako zuzendariak adierazi du familiaren eskuetan dagoela seme-alabak autonomoagoak izan edo ez. Adibidez, umea pasiboa bada eta gurasoek gehiegi babesten badute, umea ez da autonomoa izango. Gainera, beste irakasle batek gurasoen inplikazioan ere aldaketak somatu ditu. Bere esanetan, gurasoek lehen ikasleen hezkuntzan zuten inplikazioak ez dauka zer ikusirik oraingoarekin. Gaur egungo guraso askok irakasleen edo beste hezitzaileen eskuetan uzten dituzte etxean ikasi behar diren hainbat zeregin. Esate baterako, oso ohikoa da ume batek etxean gaizki bazkaldu eta horren ondorioz jantokira bidali.

Honen haritik, irakasle gehienek ikasleen autonomia hauek etxean dituzten ardurekin lotu dute. Irakasleen esanetan, asko nabaritzen da etxe bakoitzean egiten den lana. Adibidez, mahaia ipini edo jaso, motxila prestatu (nahiz eta gurasoen laguntza izan)... Eskolako zuzendariak kontrako adibidea eman zuen. Hiru urteko geletan, kurtso amaieran egonda badaude gela barruraino sartzen diren gurasoak euren seme- alabei txamarra kentzeko. Hau oztopo bat da ikasleak euren autonomia garatzeko.

Honekin batera, irakasleei ea gurasoekin autonomiaren inguruan hitz egiten duten galdetu zaie. Irakasle espezialistek, hau da, musikako eta gorputz hezkuntzako irakasleek, gurasoekin normalean ez dutela hitz egiten aitortu dute. Izan ere, haiekin ez dute harreman zuzenik. Beraz, bi irakasleek azaldu dute arazoren bat egonez gero, tutoreari komentatzen diotela honek gurasoei helarazteko. Hala ere, arazo larriren bat egotekotan, gurasoekin hitz egiten dute, baina normalean ez da ezer berezirik gertatzen.

Tutoreen kasuan, emaitzak ezberdinak izan dira. Tutore batek azaldu du autonomiari buruz batez ere kurtso hasierako bileretan hitz egiten duela. Bertan, umei askatasuna eman behar zaiela eta etxean ardura batzuk izan behar dituztela azaltzen die gurasoei. Dena den,

kasu bereziren bat ikusten badu, gurasoekin harremanetan jartzen da. Beste tutoreak ordea, hiruhilabete bakoitzeko bileretan, autonomia jorratu beharreko puntu garrantzitsu bat dela adierazi zuen, eta askotan nola landu behar duten ere azaldu behar die.

Bukatzeko, zuzendariak askotan gurasoekin bildu behar izan dela baieztatu du. Bai zuzendari bezala baita haur hezkuntzako tutore bezala ere. Guraso batzuei pautak eman behar zaizkiela adierazi du, batez ere umeei ezetz esateko. Familia askori ezetz esatea asko kostatzen zaiela esan du eta hau oso garrantzitsua da. Honetaz aparte, gurasoei puntualitatea askotan eskatu behar zaiela nabarmendu du hau ikasleen autonomiaren garapenerako oso garrantzitsua baita. Izan ere, gelako hasierako errutinetako dinamikak oso estrategia onak dira autonomia lantzeko, eta berandu etortzen badira, errutina hauek galtzen dituzte.

Irakasleen eraginari dagokionez, elkarrizketatutako irakasle guztiek, irakasleek ikasleen autonomian eta autoestimuan eragiten dutela baieztatu dute. Irakasle gehienek aipatu dute eskolaurrean eta lehen hezkuntzako hasierako zikloan irakasleak ume batzuentzat amak edo erreferenteak direla. Hortaz, ikasle bati esandako guztia berarentzat garrantzitsua izango da eta bere autonomian eta autoestimuan eragina izango du. Gainera, autoestimuari dagokionez, tutore batek adibide on bat eman du: matematiketan arazoak dituen haur batek parte hartzen ez badu, gure hitzek egoera hobetu edo okertu dezakete. Hau da, berarekin hitz egiten badugu, eta eskolara ikastera etortzen dela eta ikasteko gai dela adierazten badiogu, seguraski parte hartzera animatuko da. Paso egiten badugu, ordea, umeak gaizki pasatuko du eta eragin txarra izango du bere autoestimuan. Bestalde, eskolako zuzendariak esaldi batekin irakasleen eragina azaldu du: “La clase es el reflejo del tutor”. Bere esanetan, segun eta irakaslea nolako den, orduan eta ikasleak modu batekoak edo bestekoak izango dira.

Aurrekoarekin lotuta, irakasleei errendimendu akademikoari buruz galdetu zaienean, denek erantzun dute autoestimua eta autonomiak eragina dutela ikasle bakoitzaren errendimendu akademikoan. Ume bat ziur baldin badago bere buruaz, erresolutiboa izango da eta gauzak bere kabuz egiteko gai izango da. Gainera, autonomoa den ikasle batek zalantza guztiak galdetuko ditu eta errendimendu akademikoa orokorrean hobea izango da. Aldi berean, ikasleek, irakasleek eta familiek izandako espektatibek eragina izango dute errendimendu akademikoan.

3. Irakasleek autonomia eta hezkuntza emozionalari emandako garrantzia

Autonomiari dagokionez, irakasle guztiek garrantzi handia ematen diotela adierazi dute. Gainera, arlo guztietan landu beharreko alderdia dela guztiek nabarmendu dute. Honetaz aparte, eskolako zuzendariak eta tutore batek, argi utzi dute autonomiaren lanketa haur hezkuntzatik etorri behar dela, izan ere, bere esanetan autonomia da ikasle batekin landu

beharreko lehenengo gauza, modu horretan, haurrak gauzak bakarrik egiten, gauzak eskatzen, laguntza eskatzen eta abar ikasiko duelako. Gainera, musikako irakasleak honi gehitu dio autonomia eskolan arlo guztietan lantzeaz aparte, etxean ere landu egin behar dela.

Bestalde, beste irakasle batek lehenengo zikloko irakasle bezala, autonomiaren lanketa oso garrantzitsua dela aipatu du eta horretarako, garrantzi handia eman dio irakurketa eta idazketaren lanketari. Hau da, bere ustez, gelan zenbait lan egiterako orduan, irakurtzen eta idazten jakiteak, autonomoago izaten lagunduko du. Esate baterako, irakurtzen jakinez gero, matematikako problemak norberak bere kabuz egiteko gai izango da, nahiz eta agian batzuetan laguntza behar duen.

Elkarrizketatutako irakasleei ea autonomia lantzeko jarduera, material edo espazio berezirik erabiltzen duten galdetu zaienean, aitortu beharra dago zertxobait txuriz geratu direla. Izan ere, gehienek autonomia zeharka lantzen dutela adierazi dute eta horretarako jarduera berezirik ez dituztela prestatzen azaldu dute. Hala ere, irakasle guztiek sarritan egindako dinamikak aipatu dituzte. Esate baterako, gorputz hezkuntzako irakasleak, higieinarekin lotu du autonomiaren lanketa. Lehenengo zikloan, saio bakoitzaren amaieran umeei eskuak garbitzeko agintzen die. Horretarako, ume bakoitzak bere xaboia eta bere toaila ekarri behar du. Bigarren zikloko, eskuak garbitzeaz aparte, kamiseta aldatzeko ere agintzen die, beraz, motxila egunero ekartzeko ardura daukate. Bukatzeko, hirugarren ziklokoak dutxa hartu behar dute eta euren ardura da motxilan behar diren gauza guztiak ekartzea eta noski, bakarrik dutxatzea. Guzti honekiko, irakasleak jarraipen bat egiten du eta notetan islatzen da.

Musikako irakasleak espazio edo material berezirik erabiltzen ez dituela aitortu du, eta jarduera bereziei erreferentzia eginez honako hau esan du: “Nik uste dut autonomiaren zati handi bat dela autokontrola, bakoitzak bere burua erregulatzea”. Hortaz, autokontrola lantzeko jarduerak azaldu ditu. Txikiekin adibidez, klase bukaeran, hatzamarrekin batetik hirura nola portatu diren baloratzea esaten die eta haiekin ados ez egotekotan, beraiekin hitz egiten du. Hirugarren mailatik aurrera, “diana” eta “termometro”-aren dinamikak egiten dituela azaldu du. Hau da, ikasleek euren jarreraren arabera dianan edo termometroan gometx bat jarri behar dute. Esate baterako, txirula etxean utzi badute, ez dute dianaren erdian pegatina jarriko. Horrela euren burua autorregulatzeko aukera izango dute.

Zuzendariaren esanetan, edozer gauza ona da autonomia lantzeko: jolasak, patioak, egunerokotasuneko jarduera sinpleak... bere ustez, ikasleei aukerak eman behar zaizkie autonomia landu dezaten. Bi tutoreek honekin bat datoz. Lehenengo zikloko irakasleak diren heinean, eta ikasleak oraindik txikiak direnez, patio orduan zelan egon diren, zertara jolastu duten, besteekin nola moldatu diren, jolasteko ze tresna erabiltzen dituzten eta abar galdetu

behar zaiela azaldu dute. Bi irakasle hauen esanetan, noizbait klasea arazo batengatik eten behar bada, eteten dela esan dute.

Aurrekoarekin batera, tutore batek matematika lantzerako orduan txokoak erabiltzen dituztela azaldu du. Hala ere, nahiz eta ikasleek ze txokora joan aukeratu, denetatik pasatzea komenigarria da, beraz, irakaslearen gidapean daude. Gainera, autonomia lantzeko, ariketak egiterako orduan, lehenengo talde handian egiten dituzte, ondoren talde txikietan eta gero bakoitzak bere kabuz.

Hezkuntza emozionalari dagokionez, irakasle guztiek adierazi dute emozioen lanketa garrantzitsua dela baina ez dutela jarduera berezirik egiten. Tutore batek gela barruan emozioen txokoa dutela aipatu du. Txoko hori eguneroko errutinekin batera erabiltzen dute eta ikasleek nola sentitzen diren adierazi dezakete. Hala ere badaude bere emozioak azalaraztea kostatzen zaien umeak. Hortaz, irakasle gehienek aipatu dute emozioak lantzeko elkarrizketak erabiltzen dituztela. Hau da, umei gehienetan aurpegian ikusten zaie nola dauden, eta irakasleak haiengana joaten dira ikasleekin hitz egitera.

Aurrekoarekin batera, hezkuntza emozionalean gabeziak daudela aipatu dute zenbait irakaslek. Irakasle batek aipatu duen bezala, ume batzuk badakite zeozer gertatzen zaiela baina ez dakite zer gertatzen zaien, eta horregatik asko hitz egin behar dela beraiekin. Gorputz hezkuntzako irakasleak jolasen bitartez emozioak agerian daudela adierazi du, baina hauek modu zuzenean lantzeko ez duela ezer egiten aitortu du.

Umei arreta eman behar zaiela eta haiekin hitz egiteko eta haiek entzuteko prest egon behar garela momentu oro azaldu du musikako irakasleak. Gainera, emozionalki ondo egoteak autonomian laguntzen duela ere esan du eta honen lanketa jarduera konkretu batzuekin egin beharrean, egunerokotasuneko momentu ezberdinetan landu beharreko alderdia dela adierazi du.

Puntu honekin amaitzeko, irakasle gehienek aitortu dute gaur egun hezkuntza emozionala lantzeko jarduera asko daudela baina ez dituztela praktikan jartzen. Hala ere, ikasleekin emozioak lantzen saiatzen direla ere azaldu dute.

4. Irakasleen formakuntza

Irakasleei autoestimua, adimen emozionala eta aurretik aipatutako aspektuak lantzeko ea jarduera berezirik ezagutzen duten galdetu zaienean, guztiak hasieran hitzik gabe geratu dira. Denek esan dute gai hauek lantzeko jarduera asko daudela, bai interneten bai liburuetan baina ez dakitela bat konkretuki azaltzen.

Tutore batek, aipatu izan du egunerokotasunean landutakoaz aparte (ikasleekin izandako elkarrizketak), batzuetan noizean behin gai batzuk jorratzen dituztela, hala nola, heriotza, gurasoen banaketak... Kasu hauek gai hauekin lotutako zerbait suertatzen denean lantzen dute gehienbat liburuen bitartez. Aldi berean, irakasle honen esanetan, gai hauek ez lirateke noizean behin bakarrik landu behar, baizik eta ohiko gaiak lantzen diren bezala landu beharko litzateke.

Beste tutore batek, tutoretza planak erabiltzen dituztela azaldu du eta horretarako, egunerokotasunean gertatzen diren kasuak erabiltzen dituzte. Honetaz aparte, bi tutoreek udaletxeak antolatutako adimen emozionalarekin lotura duten tailerrak jaso izan dituztela aipatu dute. Hala ere, bi irakasle hauen usteetan, tailer hauek nahiko "flojoak" direla aitortu dute.

Emaitzen atalari amaiera emateko, irakasleen formakuntzari lerro batzuk eskainiko dizkiot. Elkarrizketatutako irakasle guztiek formakuntza gehiago izan beharko luketela aitortu dute. Honekin batera, irakasle batzuek jasotako formakuntzak nahiko eskasak izan direla adierazi dute, izan ere, hilabetean behin bi orduko formakuntza saio bat izatearekin ez da nahikoa. Zuzendariak irakasleek hezkuntza emozionala, autoestimua eta autonomiari buruzko formakuntza gehiago jaso beharko luketela uste du. Baina aurretik esan bezala, formakuntza hauek onak, motzak eta jarraiak izan behar dira bestela haria galdu egiten da.

Bestalde, tutore batek aitortu du gai hauei buruzko formakuntzak ematea ez dela erraza eta hala ere, asko saiatu egiten direla. Baina bere esanetan, esperientziak ematen dizu gai hauen aurrean jokatzeko sekretuak. Hala ere, formakuntza hauek ez datozela inoiz gaizki ere adierazi du.

Beste irakasle batek hezkuntza emozionalari buruz jasotako formakuntza autoformakuntza izan dela esan du, izan ere, bere iritziz gai hau oso interesgarria eta garrantzitsua da eta hortaz, bere kabuz bilatutako ikastaroak egin ditu. Bere garaian unibertsitatean honi buruzko formakuntzarik ez zuela jaso adierazi du eta ezinbestekoa izan beharko litzatekela azaldu du, irakasleak ondo baldin ez badaude nola ikasiko duten galdetzen dio bere buruari.

7. ONDORIOAK

Behin irakasleen elkarrizketen emaitzak analizatuta izanda, hauen ondorioak idatzita ageriko dira hurrengo lerroetan. Ondorio hauek ateratzeko, 4. atalean azaldutako hipotesiak kontuan hartuko dira hauek baieztatuz edo ezeztatuz (Ikus. 4.atala: Helburuak eta hipotesiak, 22.or).

➤ **1.HIPOTESIA: Umeek gero eta autonomia gutxiago dute.**

Ikasleen autonomiari dagokionez, gaur egungo egoera gertutik ezagutu ondoren, hipotesi hau baieztatu egin da. Praktikaldi guztietan eta irakasleekin elkarrizketak egin ondoren, jasotako erantzunen ustez, egungo umeak ez dira autonomoak. Elkarrizketatutako irakasle guztiek arazo larri bat somatu dute ikasleen autonomian eta hau gurasoek euren seme- alabei emandako gehiegizko babesaren ondorioa dela diote.

Bestalde, irakasle guztiek baieztatu dute gaur egungo umeek, orain dela hamar urteko umeek baino autonomia gutxiagoa dutela. Nabaria da gizartea azken urte hauetan aldatzen joan dela eta horrekin batera familiak ere aldatu egin direla. Hortaz, aurretik esan bezala umeak gero eta babestuago daude eta horrek euren autonomia garatzeko oztopo bat suposatzen du.

Hipotesi honekin amaitzeko, esan beharra dago elkarrizketatutako irakasleek desoreka handia somatzen dutela ikasle batzuen eta beste batzuen artean autonomiari dagokionean. Hau da, laginaren irakasleen ustez, orokorrean egungo umeen autonomia maila pobregoa bada ere, hainbat umeek autonomia maila altua izango lukete.

➤ **2. HIPOTESIA: Familiek zein irakasleek eragin handia dute ikasleen autonomian eta autoestimuan.**

Hipotesi hau erabat baieztatu da. Elkarrizketatutako irakasle gehienek haurren autonomia etxeko egoerarekin lotu izan dute. Hau da, irakasle hauen esanetan, segun eta etxeko egoera nolakoa den, ikaslearen autonomia era batekoa edo bestekoa izango da. Nahiz eta aurretik familiaren gehiegizko babesak autonomia oztopatzen duen aipatu, familiaren babesa beharrezkoa da umeen autonomiaren garapenerako. Hau da, beharrak asebate ditzuten umeek autoestimu handiagoa izango dute eta autoestimu on bat izateak eragin zuzena du autonomian, izan ere, ume batek bere buruaz ziur baldin badago, ekintza ezberdinak bere kabuz gai izango da inoren laguntzaren beharrik izan gabe. Hortaz, ondorioztatu egiten da familiaren eskuetan dagoela seme-alabak autonomoagoak izan edo ez.

Honekin batera aipatu beharra dago, irakasleek esandakoaren arabera, gurasoen inplikazioan ere aldaketak egon direla. Hau da, marko teorikoan aipatu izan den bezala, familia haurraren lehenengo gizarte eragilea da, eta gero eta gehiago uzten ari dira eskolaren eskuetan etxean ikasi beharreko hainbat zeregin. Nire ustez, haurraren hezkuntza garapena zein garapen pertsonala eman dadin, ezinbestekoa da eskola eta familia elkarlanean aritzea. Baina ezin dezakegu ahaztu bi instituzio hauen funtzioak ez direla berdinak eta familian beharrezkoa dela autonomia eta autoestimua bezalako alderdiak lantzea. Aldi berean, eskolan hauen lanketaren jarraipena ere eman behar da.

Aurrekoarekin lotuta, irakasleekin hitz egin ondoren, gurasoekin egindako bileretan autonomiari ez diotela behar duen arreta ematen. Hau da, nahiz eta irakasle batek hiruhilabete bakoitzeko bileretan gurasoekin autonomiari buruz hitz egin, besteek soilik arazoren bat dagoenean hitz egiten dutela azaldu dute. Hortaz, nik uste dut, arlo akademikoari garrantzi gehiago ematen diotela autonomia faltari baino.

Irakasle batek euren ikasleen autonomia edo autoestimuan duen eraginari dagokionez, hipotesi hau baieztatu egin da. Irakasle guztiek aitortu dute irakasle baten hitzek ikasleen autonomian eta autoestimuan eragiten dutela. Gainera, guztiek lotu dute hau ikasleen errendimendu akademikoarekin. Beraz, ikasleak honetaz nahiko kontzientziatuta daudela ondorioztatu dezaket.

- **3. HIPOTESIA:** Irakasleek autonomiari eta hezkuntza emozionalari ez diote behar duen garrantzia ematen.

Irakasle guztiek autonomia eta hezkuntza emozionalari garrantzi handia ematen diotela adierazi dute, baina zeharka lantzen dutela aitortu dute gehienek, hau da, ez dute ez jarduera ez material berezirik erabiltzen hauen lanketarako. Behatutakoaren arabera, ikasleei ardurak ematen dizkiete autonomia lantzeko, esate baterako, gorputz hezkuntzan eskuak garbitzeko eta kamiseta aldatzeko beharrezkoa den motxila prestatu.

Hala ere, honekin batera aipatu beharra daukat nahiz eta irakasleek autonomia ikasleekin lantzen dutela esan, inork ez duela aipatu erabakiak hartzearen garrantzia. Esate baterako, ikasleen asanbladak oso aproposak dira autonomia lantzeko, haien artean erabakiak hartu behar dituztelako eta berdinen artean lan egiten dutelako. Irakasle hauek autonomia lantzen dutela esaten dutenean, eguneroko errutinei egiten diete erreferentzia batez ere. Hau da, higiene pertsonalari, bakarrik jaten ikasteari, arropa bakarrik janzteari... Hortaz, laginaren erantzunak kontuan izanda ondorioztatu daiteke Maslow-ren piramideko lehenengo mailak kontuan izan dituztela, eta piramideko goi puntuetan agertzen diren aldagaiak ez direla islatu irakasleen erantzunetan. Hala nola, arrakasta edo konfiantza.

Nire ustez, Gradu Amaierako Lan honetarako egin beharreko bilaketa bibliografikoa egin ondoren, ikasleei erabakiak hartzen uztea oso garrantzitsua da autonomia lantzeko, eta eskolan arlo ezberdinetan ikasleek aukeratzeko momentu edo aukera asko daude. Baina aldi berean uste dut irakasleentzat erosoagoa denez dena emanda ematea, ez dutela praktikara eramaten.

Hezkuntza emozionalaren lanketari dagokionez, irakasleek garrantzia ematen diotela adierazi dute, baina alde hau gehienetan zeharka lantzen dutela adierazten dute; hau da, egunerokotasunean edota arazoren bat sortzean. Batek bakarrik aipatzen du tutoretza plana alde honi erantzuna emateko. Denek aipatu dute ikasleen emozioak oso garrantzitsuak direla bai arlo pertsonalerako eta bai arlo akademikorako baina ez dute lanketa berezirik egiten. Gehien bat irakasleek ikasleekin hitz egiten dute euren ikasleak emozionalki nola dauden jakiteko. Baina aurreko puntuan aipatu izan dudana bezala, askok garrantzi handiagoa ematen diote arlo akademikoari hezkuntza emozionalari baino, eta ezin dezakegu ahaztu emozionalki ondo ez dagoen ume batek, zailtasun gehiago izango dituela arlo akademikoan.

Ondorio bezala, gustatuko litzaidake aipatzea, nire ustez, autonomia eta hezkuntza emozionalaren lanketa ez dela oso sakona Eusko Jaurlaritzak 2015. urtean diseinatutako Heziberri 2020 izeneko Oinarrizko Hezkuntza Dekretuan. Izan ere, honek irakasgai bakoitzeko edukiei lehentasuna ematen dizkie, eta horren ondorioz, irakasleek dekretu honek ezartzen dituen helburu eta edukietara mugatu behar dituzte euren klaseak Heziberri 2020 dekretuan agertzen ez diren eduki garrantzitsu batzuk alde batera utziz.

➤ **4. HIPOTESIA: Irakasleen formakuntza gai hauekiko oso eskasa da.**

Hipotesi hau erabat baieztatu da. Elkarrizketatutako irakasle guztiek aitortu dute unibertsitatean zehar autonomia, autoestimua eta hezkuntza emozionalari buruz ez dutela inolako formakuntzari jaso. Behin eskola batean lanean egonda, formakuntzaren bat jaso izan dute baina oso eskasak izan direla diote. Gainera, autonomia edo hezkuntza emozionala lantzeko proposamen edo jardueraren bat aipatzeko eskatu zaienean, jarduera asko daudela baina momentuan ez zitzaiela burua etortzen adierazi zuten. Beraz, hutsune bat aurkitu dut gaur egungo irakasleen formakuntzan. Aldi berean, elkarrizketatutako irakasle batek bere kabuz hainbat formakuntza egin dituela adierazi du. Hala ere, irakasle guztiek aitortu dute gai hauei buruzko formakuntza gehiago jaso beharko luketela, beraz, interesa dutela ondorioztatu dezaket.

Ondorioei amaiera emateko, gustatuko litzaidake esatea autonomia, autoestimua eta hezkuntza emozionalaren lanketari dagokionez, irakasleen erantzunetan familiaren eta eskolaren elkarlanaren garrantzia azpimarratu egin dela, eta elkarlan honi buruz

galdetzerakoan, honako erantzunak jaso dira: “gurasoekin hitz egiten dut”, “autonomiari buruz batez ere kurtso hasierako bileretan hitz egiten dut”, “Umeei askatasuna eman behar zaiela eta etxean ardura batzuk izan behar dituztela azaltzen diet gurasoei”, “gurasoei askotan nola landu behar duten azaldu behar diet”, “guraso batzuei pautak eman behar zaizkie”... Erantzun hauetan, irizpideak eta iritziak trukatzea, akordioak eta konpromisoak lortzea ez dira islatu laginaren erantzunetan. Beraz, honekin ondorioztatu daiteke umeei ez ezik, gurasoei ere klase ematen zaiela alderdi hauek lantzeko.

8. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Gradu Amaierako Lan honekin bukatzeko, ezinbestekoa ikusten da lan honetan zehar aurkitu diren oztopoak azaltzea eta aldi berean, oztopo hauei zer nolako konponbidea eman zaien adieraziko da. Bestalde, lan hau hobetzeko proposamenak ere izango ditu irakurleak ikusgai. Horretarako, lehenik eta behin, lan hau idazten joan ahala aurkitu diren arazoak azalduko dira hauei emandako konponbidea azalduz, eta bukatzeko, lan hau luzatzeko edota hobetzeko zenbait proposamen azalduko dira.

Hasteko, aitortu beharra dago ikerketa txiki honen parte hartzaileetan gabezia bat aurkitu dela, izan ere, nahiz eta arlo ezberdinetako irakasleak elkarrizketatu (bi tutore, gorputz hezkuntzako irakaslea, musikako irakaslea, eta eskolako zuzendaria), soilik bost irakasle elkarrizketatu izan dira eta lagin eskas honekin emaitzak orokortzea ezinezkoa da. Honekin batera, esan beharra dago guraso batzuei elkarrizketatzea ere ondo egongo litzatekela, modu horretan beste ikuspegi batetik informazioa bilduko bailitzateke. Baina denbora faltagatik ezinezkoa izan da. Hala ere, nahiz eta soilik bost irakasleei elkarrizketatu, galderak irekiak izan direnez, informazio asko bildu da bakoitzak bere iritzia edo ikuspuntua adierazi duelako.

Honen harira, aurretik esan bezala, elkarrizketako galderak irekiak izan dira eta horren eraginez, emaitzak kualitatiboak izan dira. Galderak horrelakoak izateak ondorio batzuk suposatu ditu. Beste batzuen artean, emaitzak ez direla zehatzak izan pertsona bakoitzak bere esperientzia propioa duelako eta horren arabera, iritziak ezberdinak izan daitezkelako. Beraz, agian, galdera objektiboren bat egitea ez lirateke txarto egongo emaitza kuantitatiboak eskuratzeko, modu horretan emaitzak zehatzagoak izateko. Dena den, esan beharra dago, galdera irekiekin informazio oso aberasgarria lortzen dela eta galdera mota hauek informazio gehiago eskuratzeko aukera ematen dituztela.

Honen haritik, esan beharra dago bost elkarrizketatu hauetatik, tutore batekin eta gorputz hezkuntzako irakaslearekin praktikak egin ditudala, beraz, hauek autonomiari eta hezkuntza emozionalari zer nolako garrantzia ematen dioten eta gelan nola lantzen duten gertutik ikusteko aukera izan dut. Baina gainontzeko irakasleei elkarrizketak egin ondoren, jarduera interesgarriak egiten dituztela aipatu zuten. Esate baterako, eskolako zuzendariak haur hezkuntzako irakasle batek hezkuntza emozionala lantzeko jarduera ezberdinak eta oso interesgarriak egiten zituela azaldu zidan. Hortaz, hobekuntza proposamenei dagokienez, ondo egongo litzateke gela ezberdinetara sartzea eta jarduera horiek nola egiten dituzten ikustea eta aldi berean, ikasleek zelan jokutzen duten aztertzea.

Atal honekin jarraituz, interesgarria izango litzateke autonomia, autoestimua eta hezkuntza emozionala lantzeko jarduera, tutoretza plana edota unitate didaktiko bat diseinatzea eta hauek urte betez aurrera eramatea, modu horretan ikasturtean zehar egon diren aldaketak aldatu ahal izateko. Hala ere, nahiko zaila iruditzen zait horrelako proiektu bat aurrera eraman ahal izatea eskola bateko irakaslea ez banaiz.

Bukatzeko, garrantzitsua iruditzen zait aipatzea irakasle izango naizen heinean, autonomia, autoestimua eta hezkuntza emozionalaren lanketari garrantzia emango diodala. Asko harritu nau irakasleek gai hauekiko duten formakuntza eskasak, eta beharbada, autoformakuntza egitea ez litzateke gaizki egongo. Era berean, irakasleen formakuntzari erreferentzia eginez, ondo egongo litzateke formakuntza hauek egiten dituzten pertsoneri ere elkarrizketaren bat egitea, esate baterako berritzeguneko irakasle bati.

9. BIBLIOGRAFIA

- Álvarez, M., Bisquerra, R., Fita, E., Martínez, F eta Pérez, N. (2000). Evaluación de programas de educación emocional. *Revista de Investigación Educativa*, 18, 587-599.
- Antero, A. (2015). *Konfiantzaren pedagogia Arizmendi ikastolaren markoa*. Andoain: Leitzaran Grafikak, S.L.
- Aránega Español, S y Guitart Aced, R. (2005) *Hijos autónomos y responsables. La difícil tarea de educar*. Barcelona: GRAO de IRIF. Colección Familia y Educación (volumen 3).
- Bermúdez, M.P. (2000). *Déficit de autoestima. Evaluación, tratamiento y prevención en la infancia y adolescencia*. Madrid: Pirámide.
- Bisquerra, R. (2016). Educación Emocional (konp.). Documento inédito elaborado para las I Jornadas del Máster en Resolución de Conflictos en el Aula.
- Bisquerra, R. (2000). *Educación emocional y bienestar*. Barcelona: Wolters Kluwer.
- Boeree, C. G. (2006). Abraham Maslow: 1908-1970. *Personality theories*, 11.
- Bolivar, A. (2006). Familia y escuela: dos mundos llamados a trabajar en común, *Revista de Educación*, 339, 119-146 orr.
- Castellano, R. (2010). *Teoría motivacional de un psicólogo humanista*. Mexiko: UNAM.
- Cuervo, A. (2010). *Pautas de crianza y desarrollo socioafectivo en la infancia*. Bogotá: Facultad de Psicología. Corporación Universitaria Iberoamericana.
- Etxadi. Familia Psikologia Unibertsitate Zentroa (d.g.)
<https://www.legazpi.eus/files/Etxadi/eu/52.pdf> helbidetik eskuratua.
- Eusko Jaurlaritz. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (2015). 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzarako curriculum Dekretua.
- Feldman, J. R. (2001). *Autoestima ¿Cómo desarrollarla?* Madrid: Narcea
- Fernández-Berrocal, P., & Extremera Pacheco, N. (2002). La inteligencia emocional como una habilidad esencial en la escuela. *Revista Iberoamericana De Educación*, 29(1), 1-6.
<https://doi.org/https://doi.org/10.35362/rie2912869>

- Ferrerós, M.L. (2007). *Abrázame, mamá. El desarrollo de la autoestima infantil y juvenil. La clave para una infancia feliz*. Barcelona: Editorial Planeta, S.A.
- Galindo, J.D. (2012). Sobre la noción de la autonomía en Jean Piaget. *Educación y ciencia*, 15, 23-33.
- García Bacete, F. J; Doménech Betoret, F. (2002): «Motivación, aprendizaje y rendimiento escolar». Reflexiones Pedagógicas. *Docencia nº6*
- Giner, S., Lamo de Espinosa, E y Torres, C. (2000). Diccionario de Sociología. Madrid: Alianza.
- González, M.C. (2012). *Autonomía personal en el alumnado de primer ciclo: desarrollo en el área de Educación Física y la comprensión lectora*. Gradu amaierako lana. Zuzendaria: Castaño Pombo, N.
- González Pineda, J. A. (2003). El Rendimiento Escolar. Un análisis de las variables que lo condicionan. *REVISTA GALEGO-PORTUGUESA DE PSICOLOGIA E EDUCACIÓN*, 8(7), 247-255.
- Izagirre, E.H. (2013). La educación Pikler-Lóczy: cuando educar empieza por cuidar. *RELAdEI. Revista Latinoamericana de Educación Infantil*, 2(3), 37-56.
- Kamii, C eta López, P (1982) Autonomy as an aim for education: Implications of Piaget's theory, *Infancia y Aprendizaje*; 5:18, 3-32, DOI: [10.1080/02103702.1982.10821934](https://doi.org/10.1080/02103702.1982.10821934).
- León, B. (2011, urria). La relación familia- escuela y su repercusión en la autonomía y responsabilidad de los niños/as. *XII Congreso Internacional de Teoría de la Educación*, Bartzelona.
- López, V. (2017). *La pirámide de Maslow*. <http://triangulum.com.mx/piramide-maslow-empresas/> helbidetik eskuratua.
- Maria, J.A. (2009). Educación del carácter. *Cuadernos de pedagogía*. 396, 12-15.
- Naranjo, M.L. (2007). Autoestima: un factor relevante en la vida de la persona y tema esencial del proceso educativo. *Revista INIE*, 2 (7), pp. 1-27.
- Ortega, P., Minguez, R. y Rodes, M.L. (2001). *Autoestima: un nuevo concepto y su medida*. *Biblid*, 12, pp. 45-66.

- Ortiz, E. (2011). Comunidad Educativa: ámbito de colaboración entre la familia y la escuela. En J.J, Maquilón., A.B. Mirete eta A.M. Gimenez (Coords.), *Cambios educativos y formativos para el desarrollo humano y sostenible* (pp. 71-79). Universidad de Murcia.
- Pérez, P.M. (1997). Capítulo 7: Educación y desarrollo del “yo”. *El niño de 0 a 6 años. Pautas de educación*. Madrid: Acento editorial.
- Porcat Raro, E., Gimeno Nácher, M.E., Balaguer Rodríguez, P., eta Aledón Pitarch, B. (2013). El efecto Pigmalión, autoestima y rendimiento escolar. *FÒRUM DE RECERCA*, 27 (18), 417-422.
- Ramos, A. I Gimenez, M.A Muñoz-Adell, E. Lapaz (2006): *A-EP: Evaluación de la Autoestima en Educación Primaria*. TEA ediciones.
- Roca, E. (2013, maiatza). Inteligencia emocional y conceptos afines: autoestima sana y habilidades sociales. *I Congreso de inteligencia emocional y bienestar*. Zaragoza.
- Rodrigo, M.J. eta Palacios, J. (koord) (2001). Familia eta giza garapena. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Sellbach, G.A.(2013). *Teorías de la personalidad*. Tlalnepantia- Estado de México: Red tercer milenio.
- Vallés, A. (1998). *Como desarrollar la autoestima de los hijos*. Madrid: Editorial EOS.
- Vega, J.I. (2010). La autoestima del alumno. Elementos e influencias. Detección e intervención. *Innovación y experiencias educativas*, 27, 2-3.
- Yabar Tito, C.S. eta Bronzoni Zlatar, L.V. (2028). Desarrollo de la autonomía en niños de 18 a 24 meses de edad según la filosofía de Reggio Emilia aplicada en el nido La Casa Amarilla. Pontificia Universidad Católica del Perú. Gradu amaierako lana. Zuzendaria: Vargas d’Uniam, C.J.

10. ERANSKINAK

1. Eranskina: *Elkarrizketak*

1. Elkarrizketa (Tutorea 1)

1. **Datu orokorrak:**

Adina: 56

Irakaskuntzan emandako urteak: 36

Ikasketak: Magisteritza, 3 urteko gradua

2. Ikasleen autonomiari dagokionez, nola uste duzu dagoela egoera gaur egun?

Nik uste dut autonomoagoak izan daitezkeela. Orain, gurasoek gauza asko egiten dizkiete eta ikasleek gero eta gauza gutxiago dakite beraien kabuz gauzak egiten. Gainera gero eta beranduago ikasten dute gauzak egiten. Adibidez, tontakeria bat dirudi, baina zapatilen lokarriak lotzen, botoiak lotzen, kremailerak lotzen... Gero eta gauza errezagoak ekartzen dituzte janzteko.

Lana egiterakoan, nik uste dut beti egoten direla diferentziak ikasle batzuen eta besteen artean eta hemen ez dut hainbeste nabaritzen, baina arlo sozialean eta bizitzako gauzetan asko nabaritzen da.

3. Zer nolako garrantzia ematen zaio/ diozu autonomiari eskolan? Arlo bakar batean lantzen duzu (tutoretza) edo arlo guztietan landu beharreko gaia dela uste duzu?

Asko, azken finean ume bat autonomia baldin bada, resolutiboa da eta bestela, etengabe behar du nagusi baten aprobazioa eta laguntza, beti egon behar du norbait ondo ari dela esanez, bestela ez duelako bere kabuz gauzak egiten edo aurrera jotzen. Eta autonomia da txikitan landu beharreko puntua gero nagusitan benetan autonomia izateko. Haur Hezkuntzatik etorri behar da lanketa hau.

Guztietan, zalantzarik gabe arlo guztietan landu behar da eta gainera, hauekin oraindik patiotik sartzen direnean, ia egunero galdetu behar zaie zer moduz pasatu duten, norekin jolastu duten, ea gauza batera bakarrik dakiten jolasten, ea besteekin nola moldatzen diren, ea zer trikimailu egiten dituzten jolasteko edo harremanetan jartzeko... baina arlo guztietan bestela. Hau da, batzuetan klasea eten behar bada hori lantzeko edo horrelako zerbait suertatzen delako, eteten da.

4. Autonomia lantzeko jarduera/ espazio/ material bereziak erabiltzen dituzu?

Autonomia berez lantzeko igual ez, bai egiten ditugu tailer ezberdinak adibidez berdintasuna, hezkidetz... lantzeko. Hala ere, gela txokoka daukagu banatuta eta beraiek badakite ze txoko ezberdin dauden eta zer erabili ditzaketen eta noiz, noski.

5. Irakaskuntzan esperientzia handia izatekotan, alderatu ahal dituzu gaur egungo ikasleak eta duela 10 urteko ikasleak? Umeak autonomoagoak dira orain edo lehen?

Askok autonomoagoak ziren lehenengoak diferentzia handiarekin. Ez bakarrik autonomian, baizik eta, gurasoen eta etxeko inplikazioan. Gurasoek lehen ikasleen hekuntzan zuten inplikazioak ez dauka zer ikusirik oraingoarekin. Orain kalera ateratzen zara eta entzuten duzu: "Pero todavía no sabes atarte los cordones? Que te enseñan en la escuela?". Gurasoek horrelakoak esaten dituzte gauza hauek guk erakutsi behar genio bezala. Askok ez badakite ondo jaten edo ez badakite bakarrik jaten, eskolara bidaltzen dituzte. Gauza asko egintzat ematen dituzte guk egin beharko genituzkeela bezala. Gauza asko etxetik ikasten dira eta hemen reforzatu bai, baina oinarri bat ekarri behar dute.

6. Familiek gai honetan eragina dutela uste duzu?

Izugarrria, aurretik aipatu dudan guztia.

7. Familiekin gai honen inguruan hitz egiten duzu? Autonomia lantzeko zerbait hitzartzen duzue?

Gehienbat kurtso hasierako bileretan hitz egiten diet gurasoei honi buruz. Kurtso hasierako bileretan bai esaten zaie ume hauei gero eta askatasun handiagoa eman behar dietela, etxean erresponsabilitate batzuk eman behar dizkietela egiteko. Ez bakarrik etxeko lanenetan, baita ere haien arroparen arduran eta horrelakoetan. Ez bada ikusten horrelako kasu bereziren bat, normalki soilik kurtso amaieran esaten da.

8. Hezkuntza emozionala lantzea garrantzitsua dela uste duzu? Ikasleekin latzen duzu? Horrela bada, nola?

Emozioak landu behar dira. Ume batzuk badakite zeozer gertatzen zaiela baina ez dakite zer gertatzen zaien, ez dakite adierazten. Orduan batzutan esaten dizute: "joe eske eztarriko mina daukat" eta ez da eztarriko mina baizik eta hor korapilo bat daukatela zerbait gertatu zaielako. Horregatik asko hitz egin behar da beraiekin. Lehenengo eta bigarren mailak dira oso inportanteak beraiekin aho hizkuntza asko lantzeko eta emozioak honen bidez landu daitezke.

9. Ikasleen autonomiak eta autoestimua errendimendu akademikoan eragiten dutela uste duzu? Zergatik?

Pilo bat, hor ere jokatzen du paper garrantzitsu bat umearen ziurtasunak. Ume bat ziur badago bere buruaz, berak aurrera joko du eta resoluboa izango da, eta handik edo hemendik aterako da. Bera ez badago bere buruarekin ziur eta ez badaki nondik jo, ez du jakingo ezer egiten bakarrik eta beti laguntza beharko du.

10. Irakasle batek bere ikasleen autonomian eta autoestimuan eragiten duela uste duzu? Nola?

Nik uste dut baietz. Bai eskolaurrean eta bai hasiera zikloan irakasleak gara ume batzuentzat ama eta beste batzuentzat erdi ama. Guk esaten duguna beraietzat inportantea da eta bete egiten dute. Orduan, beraiek zu ziur ikusten bazaituzte beraiekin gauza bat lantzen, beraiek inportantzia emango diote horri. Batzuetan etxeok esaten dutenari baino garrantzi gehiago ematen diote hemen esaten zaionari. Orduan izugarritzko garrantzia daukagu guk bere bilakaeran.

11. Autoestimua, adimen emozionala... lantzeko jarduera berezirik ezagutzen dituzu? Zeintzuk?

Gelan egunero lantzen dugunaz aparte eta zuk ume bat nola ikusten duzunaren arabera umearekin lantzeaz aparte, baita ere batzuetan lantzen ditugu puntualki adibidez, heriotzak, banaketak... eta igual ez lirakete puntualki landu behar, baizik eta beste gauza bat lantzen den bezala landu beharko litzateke. Lantzen dugu igual gehiago zerbait suertatzen denean. Kasu horietan jotzen duzu liburueta edo. Hala ere nik uste dut garrantzi handia duela eta gehiago landu beharko genukeela.

Gero ume bat gaizki ikusten dugunean, bai aprobetxatzen dugu ume horrekin hitz egiteko bakarka eta gainontzeko ikasleekin ume hori ez dagoenean, izan ere, haiek ere jakin behar dute nola sentiarazten dioten ume horri. Batzuetan ez dira gai benetan zer egite ari diren eta konturatuarazi behar dituzu.

12. Gai hauen inguruan (autonomia, autoestimua, hezkuntza emozionala...) formakuntza nahikoa jaso duzula uste duzu (unibertsitatean eta ondoren berritzegune, adarra, garatu...)? Irakasleek honi buruz formakuntza gehiago izan beharko luketela uste duzu? Zergatik?

Nik uste dut formakuntza hori ematen jendea saiatzen dela, baina horrek esperientziak ematen dizu arlo hauek nola landu behar dituzun. Egia da formakuntza horiek ez datozela inoiz gaizki. Orain dela urte batzuk ditugu tailer berezi batzuk ez guk esandakoaren gauza

desberdinak esango dietelako, baizik eta modu desberdinean. Ni egon naiz tailer emozional hauetan, umeein geratu naiz gela barruan ea nola lantzen duten ikusteko eta nik uste dut gu bezala lantzen dutela, baina urtean zehar gure ahotsa eta azalpenak entzuten ari dira, orduan noizean behin beste tipa edo beste tipo bat etortzea eta beste gauza batzuk edo berdinak esatea ondo dago ere bai. Baina gero ez dute modu berezirik egiten gauza horiek lantzeko. Nik uste dut gehien bat esperientziak ematen dizula nola jokatu.

Tailer hauek Gateizko Udaletxeak antolatzen ditu. Badaramagu 4 urte tailer hauekin eta urtero pertsona ezberdinak etortzen dira hauek ematera, eta jenden arabera ere asko aldatzen da. Ordubeteko saioak dira, batzuk egoera bat aurkezten diete umeei eta horien bitartez lantzen dute, beste batzuk marrazkien bidez, galderen bidez... Hala ere, nik uste dut tailer hauetan lantzen dena, guk eguneroko etenaldian lantzen ditugula.

2. Elkarrizketa (Tutorea 2)

1. Datu orokorrak:

Adina: 35

Irakaskuntzan emandako urteak: 10

Ikasketak: Lehen hezkuntza 3 urte eta entzumena eta mintzaira eskoriatzan 2 urte

2. Ikasleen autonomiari dagokionez, nola uste duzu dagoela egoera gaur egun?

Gaur egun, 2019an nik uste dut badoala pixka bat hobetzen, gurasoek nik uste dut ikusi dutela azken urteetan egon diren gabeziak eta batzuk hau aldetzeko prest daude eta aldatzen ari direla, baina hala ere, gaur egun behar dute laguntza. Autonomia oso gutxi lantzen dute etxean eta hori nabaritzen da. Gaizki dago panorama baina behintzat nik ikusten dut zerbait hobetzen ari dela.

3. Zer nolako garrantzia ematen zaio/ diozu autonomiari eskolan? Arlo bakar batean lantzen duzu (tutoretza) edo arlo guztietan landu beharreko gaia dela uste duzu?

Ni lehenengo zikloan nago eta nik uste dut autonomia oso garrantzitsua dela beti lantzea. Lehenengo zikloan nik hau asko lantzen dut baina ikasgai guztietan, ez bakarrik tutoretzan. Gero eta autonomoak izango dira, adibidez irakurketa eta idazketaren lanketak autonomia bultzatuko du. Lanak egiterako orduan laguntza behar dutenek laguntza jasoko dute baina saiatuko gara geroz eta autonomoak izaten.

4. Autonomia lantzeko jarduera/ espazio/ material bereziak erabiltzen dituzu?

Txokoak erabiltzen ditugu gehien bat matematikan, egia da haiek erabakitzen dutela ze txokora joan baina txoko guztietatik pasa behar dira orduan ez dakit hor autonomia erabat lantzen den. Matematikan adibidez, Pereda proiektua erabiltzen dugu eta nahiko potentea da. Horregatik lehenengo talde handian lan egiten dugu, ondoren, talde txikietan IKKI-ren (talde kooperatiboak) bitartez eta gero haiek bakarrik aritzen dira.

5. Irakaskuntzan esperientzia handia izatekotan, alderatu ahal dituzu gaur egungo ikasleak eta duela 10 urteko ikasleak? Umeak autonomoagoak dira orain edo lehen?

Ez dut oso ondo gogoratzen, ordezkapenekin nenbilen garai hartan. Baina egia da egon dela momentu bat autonomiaren asuntua joan dela pikutara, deskontrol pixka bat egon dela. Eta lehen esan dizudan bezala, orain berriro bueltatzen ari gara horretara. Orain dela 10 urte ez dakit egoera horretan geunden edo ez. Askok diote duela urte batzuk orain baino hobeto zeudela, baina nik uste dut bide onean gaudela berriro, baina hala ere, kostatuko da.

6. Familiek gai honetan eragina dutela uste duzu?

Bai, handia gainera. Nabaritzen da asko ze etxetan egiten den lana eta gelako lan ohiturak. Batzuk badauzkate ardurak etxean, adibidez, mahaia jartzen, eta gero hau gelan ikusten da. Batzuk oraindik ez dakite lokarriak lotzen eta laguntza eskatzen dute eta hau guraso batzuekin landu behar dut.

7. Familiekin gai honen inguruan hitz egiten duzu? Autonomia lantzeko zerbait hitzartzen duzue?

Bai, hiruhilabete bakoitzean bilerak izaten ditut gurasoekin eta autonomia beti da hitz egin beharreko puntu bat, eta askotan nola landu behar duten esan behar diet. Askok etxera joaten dira, motxila bota eta ez dute ezer gehiago egiten eta ez dut etxerako lanei buruz hitz egiten. Etxean zerbait aportatzea nik uste dut ezinbestekoa dela. Badakit ohea egitearena zaila dela batzuk beti presaka irtetzen direlako etxetik eta gainera ikastolan egoten dira arratsaldeko seiak arte, baina hala ere, beti tartetxoak badaude, asteburuetan adibidez. Afaldu ordua denean, behintzat mahaia jarri edo jasotzen lagundu. Ikasleek jakin behar dute jaikitzen garenean gosaltzen dugula eta ondoren hortzak garbitu behar ditugula. Hori haiek bakarrik egin behar dute, ez dira gurasoak haien atzean ibili behar zer egin behar duten errepikatuz. Hau lantzea ez da hainbesterako eta hau autonomia lantzea da.

8. Hezkuntza emozionala lantzea garrantzitsua dela uste duzu? Ikasleekin latzen duzu? Horrela bada, nola?

Nik uste dut oso garrantzitsua dela hezkuntza emozionala lantzea. Hala ere, ez dakit ondo edo gaizki egiten dudan, baina saiatzen naiz hau lantzen. Emozioak lantzeko badugu tarte bat dela emozioen txokoa eta egiten dugu eguneroko errutinekin. Hori batzuei etortzen zaie ondo, esaten dute nola sentitzen diren eta abar. Baina beste batzuei, normala denez, asko kostatzen zaie eta horiekin saiatzen naiz beste modu batez egiten beraiekin hitz egiten. Nik baditut ikasle pare bat kostatzen zaiena zer gertatzen zaien azaltzea eta oso gaizki pasatzen dute. Orduan beraiekin egin behar dut pixka bat aparte. Zerbait gertatzen denean hitz egin behar dut beraiekin aparte eta nola sentitzen diren galdetu. Beste ikasle bat jotzen badute nola sentituko zen beste ikaslea galdetzen diot enpatia lantzeko asmoz. Orokorrean hori egiten dut, badakit askoz gehiago egin daitekela baina batzuetan ez dago beste baliabiderik. Batez ere, elkarrizketak erabiltzen ditut sentimenduak idaztea oso zaila delako. Nagusei kostatzen zaie, imaginatu umeei.

9. Ikasleen autonomiak eta autoestimua errendimendu akademikoan eragiten dutela uste duzu? Zergatik?

Autoestimua beti da garrantzitsua. Batzuetan gertatzen da, normalean maila guztietan baina adibidez, lehenengo zikloan irakurketa lantzerakoan, badaude ikasle batzuk bat-batean konturatzen direla besteei baino gehiago kostatzen zaiela eta parte hartzea jeisten hasten dira eta saiatu behar gara horri buelta ematen. Hala ere, badaude ikasle batzuk badakitenak besteak baino motelago irakurtzen dutela eta hala ere, nork irakurri nahi duen galdetzen dudanean, eskua altxatzen dute. Autoestimua altua izanda, nahiz eta gaizki irakurtzen duten jakin, besteen aurrean irakurtzen jarraitu nahi dute eta azken finean horrela ikasten dute. Baina oso lotuta dago bai.

10. Irakasle batek bere ikasleen autonomian eta autoestimuan eragiten duela uste duzu? Nola?

Bai. Adibidez aurretik aipatu dudan kasua, baldin badago ume bat ez duela parte hartzen zailtasunak dituelako idazketa eta irakurketan edo matematikan, ikasle horrengan izan beharko dugu atentzio gehiago eta saiatu behar gara ikusiarazten zailtasunak izanez gero, hemen gaudela laguntzeko eta gauzak gaizki egiten ikasten dugula. Nik beti esaten diet “dena ondo egiten badugu, zertarako etortzen gara ikastolara?” Irakasleak egoera hauek bideratu behar ditu, umeek parte hartu behar dute gelan ezin dugu utzi ume bat gelan ezer egin gabe. Umeak gaizki pasatu dezake eta honek eragina izan dezake autoestimuan.

11. Autoestimua, adimen emozionala... lantzeko jarduera berezirik ezagutzen dituzu? Zeintzuk?

Tutoretza planak erabiltzen ditugu, eta egunerokotasunean gertatzen diren kasuak erabiltzen ditugu. Aurten tailer bat egin dugu baina egia esan nahiko flojo iruditu zait. Tailerrean landutakoa askotan lantzen dugu klasean, baina Udaletxeak antolatutako tailerrak egiten diugu bai.

12. Gai hauen inguruan (autonomia, autoestimua, hezkuntza emozionala...) formakuntza nahikoa jaso duzula uste duzu (unibertsitatean eta ondoren berritzegune, adarra, garatu...)? Irakasleek honi buruz formakuntza gehiago izan beharko luketela uste duzu? Zergatik?

Nik jaso dudan formakuntza autoformakuntza izan da. Nire ustez oso interesgarria eta garrantzitsua da eta nire kabuz bilatutako ikastaroak egin ditut. Baina unibertsitatean, nire garaian behintzat oso gutxi ikutzen zen. Eta uste dut dela gai oso oso garrantzitsua, agian garrantzitsuena, bestela ikasleak nola ikasiko dute ondo ez badaude?

3. Elkarrizketa (musikako irakaslea)

1. Datu orokorrak:

Adina: 30

Irakaskuntzan emandako urteak: 6 urte ikastoletan eta kontserbatorioan 2 urte

Ikasketak: Biolinaren interpretazioa, magisteritza distantzian eta masterra “art and education violin teaching”

2. Ikasleen autonomiari dagokionez, nola uste duzu dagoela egoera gaur egun?

Nik ikusten dut desoreka handia. Autonomoenen eta autonomia gutxien duten ikasleen artean, franja oso handia dela eta hori dela arazoa. Fundamentua duten umeak normalean egoera on batean dauden umeak izaten dira, hau da, babestuta, haien beharrak aseta eta beraien etxetik jarraipena duten umeak. Hauek autonomia nahikoa dutela uste dut, haien adinerako, noski. Horien eta babesgabe daudenen artean, edo etxetik babesa ez daukatenak eta burua beste nonbaiten dutenak bere beharrak aseta ez daudelako, hauek autonomia maila oso baxua da. Nik uste dut hemen dagoela arazoa eta bi talde hauek desoreka hain handia ez izaten saiatu beharko ginateke. Gero gizartean alde hau baitago.

3. Zer nolako garrantzia ematen zaio/ diozu autonomiari eskolan? Arlo bakar batean lantzen duzu (tutoretza) edo arlo guztietan landu beharreko gaia dela uste duzu?

Nik argi daukat ez dela arlo bakarrean landu beharreko puntu bat eta eskolan garrantzia daukala argi daukat baietz. Adibidez, etxera joan aurretik badakizu aulkia altxatu behar duzula, hor autonomia lantzen da. Edo patiora irtetzerako orduan, hasieran irakasleak gogoratuko dizu txamarra hartu behar duzula baina pixkanaka pixkana ikasleak bere kabuz joan behar da hau egiten. Horrelako gauza sinpleetatik hasita, gela barruko gauzetaraino. Nire arloan (musika) adibidez, hasten naizenean etxeko lanak bidaltzen, ez diet inoiz bidaltzen ezer berria egiteko, batez ere gelan egindakoa birpasatzeko esaten diet autonomia hori lortzeari begira. Adibidez, etxera txirula eraman behar dutela eta klasera ekarri behar dutela bueltan. Ezin dutela txirula etxean ahaztu. Uste dut autonomia eskolan landu behar dela arlo guztietan, baina ez eskolan bakarrik. Autonomia etxean ere landu beharreko gauza da eta eskolan lanketa horrekin jarraitu behar dugu.

4. Autonomia lantzeko jarduera/ espazio/ material bereziak erabiltzen dituzu?

Espazio berezirik ez, nik beti musika gelan ematen dut klase eta jarduera berezirik, ez nago ziur hau autonomiaren kontua izango den edo jarreraren kontua. Nik uste dut autonomiaren zati handi bat dela autokontrola, bakoitzak bere burua erregulatzea eta orduan, horri begira jarduera berezi bezala txikiei adibidez esaten diet: "jarri atzamarrekin batetik hirura zelan portatu zareten gaur" eta ikusten badut esaten dutena zentzuduna dela berdina uste dudala esaten diet edo ez banago ados beraiekin aparte hitz egiten dut. Eta hirugarren mailatik aurrera dianaren eta termometroaren dinamika egiten dut. Batez ere beraiek bere jarrera nonbaiten plasmatuta ikusteko. Adibidez, txirula ahaztu bazaizu ez duzula dianaren erdian jotzen edo jarrera txarra izan baduzu eta ez zure burua autoerregulatzeko gai izan ez bazara, hor plasmatuta ikusteko aukera izango dute. Horrelako jarduerak egiten ditut baina jarduera berezirik ez.

5. Irakaskuntzan esperientzia handia izatekotan, alderatu ahal dituzu gaur egungo ikasleak eta duela 10 urteko ikasleak? Umeak autonomoagoak dira orain edo lehen?

Ez nengoen irakaskuntzan garai hartan, baina nire inguruko umeak ikusiz zerbait esan dezaket. Nire ama adibidez irakaslea da eta datorren urtean jubilatuko egiten da. Eta beti dabil horretaz kexatzen, umeek gero eta autonomia gutxiago dutela.

6. Familiek gai honetan eragina dutela uste duzu?

Asko. Alde handia ikusten da ume batzuen eta besteen artean. Ume batzuk ikusten dituzu bere anai arreben bila etortzen direla bostetan, inkluo merienda ekartzen diotela anai arreba txikiari... eta beste batzuk ordea, igerilekura joaten zara laguntzera eta ume batzuk ez dira gai ezta txankletak poltsa batean sartzeko. Uste dut etxean landu beharreko gaia dela eta desberdintasun handia ikusten da etxean lantzen dutenen eta lantzen ez dutenen artean. Eta noski, eskolan ere lan handia daukagu egiteko.

7. Familiekin gai honen inguruan hitz egiten duzu? Autonomia lantzeko zerbait hitzartzen duzue?

Ni normalean tutoreekin hitz egiten dut. Adibidez ikusten badut ikasle bat ez dela gai autorregulatzeko edo materialaz arduratzeko tutorearekin hitz egiteko. Gela honetan adibidez galdutako objetuen kutxa daukagu, eta beti aurkitzen badut hemen ikasle berdinen liburua edo txirula, irakasleari esaten diot. Baita ikasleari ere, noski.

8. Hezkuntza emozionala lantzea garrantzitsua dela uste duzu? Ikasleekin lantzen duzu? Horrela bada, nola?

Garrantzitsua bai, erabatekoa. Uste dut gero eta autonomoagoak diren umeak direla pertsonalki ondo sentitzen diren umeak eta sentitzen direnak ongi. Nola lantzen dugun? Nik uste dut hori ez dela jarduera baten bidez landu beharrekoa, eguneroko gauza bat dela, hau da, gelan sartzen diren momentuan ikasle bat gaizki ikusten baduzu, galdetu behar zaio zer gertatzen zaion. Eta poz pozik ikusten duzunean ere, berarekin hitz egin behar da. Arreta eman behar zaie umei. Musikan ere, abestiak erabiltzen ditugu emozioak lantzeko. Horien bitartez erraz ikusten dira haien espresioak.

9. Ikasleen autonomiak eta autoestimuak errendimendu akademikoan eragiten dutela uste duzu? Zergatik?

Bai erabat. Autoestimuak erabat. Beraiek dauzkaten espektatibak beraiekiko eta guk dauzkagun espektatibak beraiekiko erabat eragiten dute. Eta familia noski, dudarik gabe. Autonomiaren kasuan ere eragina duela uste dut. Autonomia zure bizitzan moldatzeko beharrezkoa da eta eskolan erakusten behar diegu gizartean nola bizi behar diren, autonomia ezinbestekoa iruditzen zait.

10. Irakasle batek bere ikasleen autonomian eta autoestimuan eragiten duela uste duzu? Nola?

Bai, klaro. Familiak eragiten duen bezala, irakasle batek ere eragiten du. Irakaslea azken finean ikasle askoren erreferentea da. Hala ere ez dut uste irakasle batek familia bezainbeste boterea duenik, hau da, lehen babesgunea familia da. Baina lehen aipatu bezala, irakaslea eskolan erreferentea da eta maitasuna, babesa eta laguntza eman behar die ikasleei. Guzti horrek eragina izango du umearengan.

11. Autoestimua, adimen emozionala... lantzeko jarduera berezirik ezagutzen dituzu? Zeintzuk?

Badaude umeen emozioak lantzeko jarduera asko, baina egia esan musika gelan asteen soilik ordu batez etortzen direnez, musika hizkuntzara bideratzen ditut gehiago klaseak. Abestiekin lantzen saiatzen naiz, abestien letrak komentatzen, bakoitzak momentu batean aukeratzen du abesti bat...

Nire ustez jarduera bereziek hauetan lagundu dezakete baina egunerokotasuneko tratuari emango nioke garrantzi handiagoa. Gertutasuna erakutsi, behar dutenean haiekin hitz egin... Egia esan, gatazkak egon direnean egin izan dut, adibidez, dianaren jarduera gatazka batetik sortu zen. Umeek ikusi behar dute talde jarduna nolakoa den eta hori termometroaren bitartez islatuta ikusten dute.

12. Gai hauen inguruan (autonomia, autoestimua, hezkuntza emozionala...) formakuntza nahikoa jaso duzula uste duzu (unibertsitatean eta ondoren berritzegune, adarra, garatu...)? Irakasleek honi buruz formakuntza gehiago izan beharko luketela uste duzu? Zergatik?

Formakuntza gehienak nahiko teorikoak iruditu zaizkit eta ez dutela aportatzen aportatu dezaketen adina uste dut, eta nire ustez kriston gai potentea eta garrantzitsua da eta formakuntza on bat, ongi etorria izan dadila. Baina egia esan jasotako formakuntzak era eskas batean tratatu izan ditugu. Formakuntza gehiago jaso beharko genituzke gai honen inguruan.

4. Elkarrizketa (gorputz hezkuntzako irakaslea)

1. Datu orokorrak:

Adina: 52

Irakaskuntzan emandako urteak: 31

Ikasketak: Magisteritza zientzia puruak 3 urte. Gorputz Hezkuntza urte batean UNED-en.

2. Ikasleen autonomiari dagokionez, nola uste duzu dagoela egoera gaur egun?

Uste dut autonomia aldetik denbora pasa ahala, autonomia galdu egin dela. Nik uste dut egungo ikasleak autonomia gutxiago dutela duela zenbait urtekoak baino. Arrazoa, nire ustez umeak ez dira errudunak baizik eta gurasoak, gizartea, ingurukoak...

3. Zer nolako garrantzia ematen zaio/ diozu autonomiari eskolan? Arlo bakar batean lantzen duzu (tutoretza) edo arlo guztietan landu beharreko gaia dela uste duzu?

Jakina. Gure arlotik ere saiatzen gara gure aldetik jartzen. Adibidez, txikitatik eskatzen diegu eskuak garbitzea, materialarekin arduratsuak izatea eta etxetik ekartzea eta hori kontrolatzen dugu. Adinaren arabera, eskaera maila ezberdina da. Lehehengo ziklokoei adibidez, eskuak garbitzeko agintzen diegu, bigarren ziklokoei eskuak garbitzeko eta kamiseta aldatzeko eta hirugarren ziklokoei dutxatzera behartzen diegu. Eta horretarako denbora nahikoa uzten diegu, haiek bakarrik egin dezaten. Eta autonomia lantzeko ere, bakoitzak badaki nola etorri behar den jantzita gorputz hezkuntzako klaseetara eta kamiseta eta jaboia ekarri behar dutela, eta hau egunero kontrolatzen dugu.

4. Autonomia lantzeko jarduera/ espazio/ material bereziak erabiltzen dituzu?

Gimnasioan ematen dugu denbora gehiena baina aldagelak ere garrantzitsuak dira denbora handia ematen baitute bertan. Gutxienez saio bakoitzean 10- 15 minutu. Ikasleen artean denetarik dago. Ikasle batzuk etxetik jantzita etortzen dira eta aldageletan bakarrik aldatzen dira. Beste batzuk kirol arroparekin etortzen dira eta gero aldatu egiten dira... Aldagelan autonomia asko lantzen da.

5. Irakaskuntzan esperientzia handia izatekotan, alderatu ahal dituzu gaur egungo ikasleak eta duela 10 urteko ikasleak? Umeak autonomoagoak dira orain edo lehen?

Autonomoagoak ziren lehen, gurasoak ez zeudelako hain gainean. Nik adibidez beti jartzen dut adibide berdina. Orain dela urte batzuk umeak txikitatik beraiek bakarrik joaten ziren eskolara eta hori gaur egun ia-ia ezinezkoa da. Egia da gizartea asko aldatu dela, gauza asko entzuten direla... eta horrek suposatzen dut eragina izango duela. Baina nik uste dut lehen ikasleek autonomia gehiago zutela gaur egunekoak baino.

6. Familiek gai honetan eragina dutela uste duzu?

Zuzena. Honen "errudunak" dira.

7. Familiekin gai honen inguruan hitz egiten duzu? Autonomia lantzeko zerbait hitzartzen duzue?

Guk gorputz hezkuntzatik gurasoekin harreman zuzena ez daukagu, bakarrik behar-beharrezkoa denean. Noizbait gertatu izan zaigu irtera edo sarreretan gurasoekin egotea eta askotan umeak ez badu ekartzen kirol arropa ba gurasoei komentatzea. Baina gutxitan gertatu izan zaigu.

8. Hezkuntza emozionala lantzea garrantzitsua dela uste duzu? Ikasleekin latzen duzu? Horrela bada, nola?

Zeharka seguru lantzen dugula. Era zuzenean horrela nahita igual jakin gabe lantzen ari gara baina ez ditugu saio berezirik lantzen horretarako baina, umeak jolastea atsegin du eta umeak jolastu behar du eta jolasetan emozioak ikusten dira eta lantzen dira, eta egunero presente daude.

9. Ikasleen autonomiak eta autoestimua errendimendu akademikoan eragiten dutela uste duzu? Zergatik?

Bai, eragin zuzena dauka. Guk umeak hezitzen ditugu eta hezigarritasun horren barruan autonomia garrantzi handiko kontua dela uste dut. Nik uste dut behartuta gaudela autonomia lantzerako eta gure lanetako atal garrantzitsuenetarikoa bat izan beharko lukela.

10. Irakasle batek bere ikasleen autonomian eta autoestimuan eragiten duela uste duzu? Nola?

Irakasle batek beti eragiten du nahi eta nahi ez. Eta autonomian baita ere.

11. Autoestimua, adimen emozionala... lantzeko jarduerak berezirik ezagutzen dituzue? Zeintzuk?

Bereziki ez dugu lantzen baina suposatzen dut zeharka lantzen dugula. Baina harrapatzen nauzu hutsean.

12. Gai hauen inguruan (autonomia, autoestimua, hezkuntza emozionala...) formakuntza nahikoa jaso duzula uste duzu (unibertsitatean eta ondoren berritzegune, adarra, garatu...)? Irakasleek honi buruz formakuntza gehiago izan beharko luketela uste duzu? Zergatik?

Nik uste dut formakuntza gehiago jaso beharko genituzkela. Nik egin ditudan ikastaro guztien artean gai hau bereziki ez dute inoiz landu. Badakit badaudela, baino gehiago jotzen dugu gure arloa modu zuzenean lantzen dituzten formakuntzetara. Baina beharrezkoa dela uste dut bai.

5. Elkarrizketa (zuzendaria)

1. Datu orokorrak

Adina: 45

Irakaskuntzan emandako urteak: 23

Ikasketak: magisteritza, psikopedagogia eta logopeda.

2. Ikasleen autonomiari dagokionez, nola uste duzu dagoela egoera gaur egun?

Ez direla autonomoak. Familiak ez die uzten autonomoak izaten, lehen askoz autonomoagoak ziren familiak ez zituztelako hainbeste babesten.

3. Zer nolako garrantzia ematen zaio/ diozu autonomiari eskolan? Arlo bakar batean lantzen duzu (tutoretza) edo arlo guztietan landu beharreko gaia dela uste duzu?

Arlo guztietan landu beharreko gaia da. Haur hezkuntzatik ikasle batekin landu beharreko lehenengo gauza autonomia da, umeak ikasi behar du gauzak bakarrik egiten, gauzak eskatzen, laguntza eskatzen, mugitzen beraiek bakarrik... eman behar zaie aukera eta oarin momentu honetan askok ez daukate aukera hori.

4. Autonomia lantzeko jarduera/ espazio/ material bereziak erabiltzen dituzu?

Edozer gauza da ona autonomia lantzeko. Jolasak, edozein jolas gainera. Psikomotrizitate gelan autonomia asko lantzen da, patio orduetan, edozer gauza beste gelara eskatzera joaten direnean... edozer gauza balio du autonomia lantzeko.

5. Irakaskuntzan esperientzia handia izatekotan, alderatu ahal dituzu gaur egungo ikasleak eta duela 10 urteko ikasleak? Umeak autonomoagoak dira orain edo lehen?

Lehen askoz autonomoagoak, baina nik uste dut gizartea aldatzen doan heinean, familiak ere aldatu egiten direla eta umeei oztopo asko jartzen zaizkie autonomia garatzeko. Hemen gertatzen da, hiru urteko geletan kurtso amaieran gaude eta oraindik gurasoak gela barruraino sartzen dira umei txamarra kentzera eta ikasle horiek ez dute ikasi txamarra kentzen familia hor dagoelako txamarra kentzen.

6. Familiak gai honetan eragina dutela uste duzu?

Guztiz. Azkenean, familiak gara. Guk egiten dugu gure seme-alabak autonomoagoak izan edo ez. Gure esku dago. Umea baldin bada pixkat pasiboa eta gurasoek babesten badute ez dira autonomoak izango.

7. Familiekin gai honen inguruan hitz egiten duzu? Autonomia lantzeko zerbait hitzartzen duzue?

Bai, askotan hitz egiten da gurasoekin, bai tutoreak bai nirekin zuzendari bezala. Askotan pautak ematen zaizkie, ezetz esan behar bada ezetz esateko... eta familia askori ezetz esatea asko kostatzen zaie. Adibidez, guk garrantzi handia ematen diogu puntualitateari, azkenean familiaren ardura da umea puntual ekartzea baina askotan umea berandu etortzen bada, eguneroko dinamika guztiz galtzen du eta askotan hasierako dinamikak errutinak izaten dira eta hauek dira autonomia lantzeko oso estrategia onak. Familiei beti esaten diegu puntual etortzea, ze nahiz eta haur hezkuntza derrigorrezkoa ez izan, oso garrantzitsua da ekartzen badute, beti ordu berdinetan ekartzea.

8. Hezkuntza emozionala lantzea garrantzitsua dela uste duzu? Ikasleekin latzen duzu? Horrela bada, nola?

Nik uste dut gaur egun hezkuntza emozionala asko aldatu dela eta orain daudela estrategia pilo bat, jolas pilo bat eta gaur egun irakasleek hori daukate oinarri, jolasak eta umeari uztea nahi duena esaten, entzutea umeari edozein momentutan. Eta hau egin beharko zen irakaskuntza guztian. Orain asko lan egiten da txokoka. Aurten metodologia aldatu da eta proiektuka lanean dabiltza. Gela irekiak egiten dira eta ikaslea momentu horretan zelan dauden arabera, gela batera edo bestera joaten dira askatasun osoz.

9. Ikasleen autonomiak eta autoestimua errendimendu akademikoan eragiten dutela uste duzu? Zergatik?

Bai. Haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan. Autonomoa den ikasle batek beti galdetuko du, beti egingo ditu gauza gehiago autonomoa ez de den ume bat baino. Galdetzea oso garrantzitsua da. Hor autonomia lantzeaz aparte, ez dakizuna zuzentzen da. Normalean autonomoak direnak dauzkate gauza asko irabazita.

10. Irakasle batek bere ikasleen autonomian eta autoestimuan eragiten duela uste duzu? Nola?

Guztiz. Normalean esaten da "La clase es el reflejo del tutor". Irakaslea bada oso berritsua eta asko mugitzen dena, gela ere horrelakoa izango da. Irakasle batek indar asko jartzen badu irakurketa edo idazketan, irakasle hauek irakurketa idazketan ibiliko dira oso ondo. Irakaslearen arabera gela aldatzen da asko, batez ere, haur hezkuntzan.

11. Autoestimua, adimen emozionala... lantzeko jarduera berezirik ezagutzen dituzu? Zeintzuk?

Asko daude. Liburu asko daude eta interneten jarduera asko, baina orain ez dakit konketu bat esaten.

12. Gai hauen inguruan (autonomia, autoestimua, hezkuntza emozionala...) formakuntza nahikoa jaso duzula uste duzu (unibertsitatean eta ondoren berritzegune, adarra, garatu...)? Irakasleek honi buruz formakuntza gehiago izan beharko luketela uste duzu? Zergatik?

Nik magisteritzan ez nuen honi buruzko formakuntzarik jaso eta psikopedagogian ezta ere. Ni hau hasi nintzen lantzen berritzegunen. Berritzeguneko formakuntza jaso nuen honi buruz, eta hemen ikasi dut.

Irakasleek honi buruzko formakuntza gehiago jaso beharko luketela uste dut, baina formakuntza onak. Motzak eta onak, ez hilabete batean bat eta handik hiru hilabetera beste bat. Azkenean haria galtzen da. Behar ditugu formakuntza jarraiak eta ahal bada motzak. Normalean formakuntzak izaten dira orduz kanpo eta hiru aste jarraian. Hauek onak dira baina ordutegia irakasleentzat ez da ona. Eskatu dugu behin baino gehiagotan hona etortzea eta hemen ematea hiru orduko saioak baina ez dugu lortzen.